



# ARGIA

## MASPALOMAS

AITOR ARREGI ETA JOSE MARI GOENAGA

***“Pelikula ez da soilik  
atzera armairuan sartzen den  
pertsona bati buruzkoa”***



# 2.930 | 2025 / 09 / 14 | 4 €



***“Eraldatzailea da mina  
eta deserosotasuna  
lehen lerroan jartzea”***

14 | IRATI ZUBIA



***Zapalkuntza  
kolonialaren ondorioak  
Erdialdeko Amerikan***

24 | MEATZARITZA



***‘Bizitza baten txatalak’  
liburu berriaz  
elkarrizketa***

32 | ENBEITA ETA MADARIAGA

Kamiseta **17 €**

Erosten duzun produktu bakoitzarekin,  
ekarpen ekonomikoa egiten diozu  
Mbolo Moye Doole elkarteari.  
Batez ere Senegaldik etorritako  
migratzailez osatutako Bilboko  
kale-saltzaileen elkarte da Mbolo.

 **ARGIA**

**azoka.argia.eus**

**(+34) 943 37 15 45**

Bidalketa gastuak **5€**.

Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

Poltsa **14 €**



## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO  
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO IRUDIA: MASPALOMAS FILMA

## Iritziak

- 19 | ASIER BLAS
- 20 | TERE MALDONADO
- 21 | IÑAKI BARCENA
- 21 | LEIRE NARBAIZA
- 22 | NEKANE TXAPARTEGI

## Finkoak

- 38 | KOMUNITATEA
- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 44 | DENBORA-PASAK
- 45 / 52 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



### 32 | ONINTZA ENBEITA ETA FELI MADARIAGA

*Bizitza baten txatalak. Andre bat lurrari emana liburua kaleratu berri du Onintza Enbeitak ARGIAko Bizi Baratzea sailean. Feli Madariagaren bizitzako txatalak dira kontatzen dituenak eta bi andrak elkarriketatu ditu Estixu Eizagirik, Igertu baserriaren atarian. Bertan aletu dituzte hainbat gai: baserriko lana, azokara saltzera joatearen gorabeherak, Gernika erre zutenekoa, emakume izateak ekarritako bizipenak...*

## Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

**Munduko auzitegi gorenak klimari buruzko estatuen ardurak argitu izanak ze aldaketa dakar?**

Nicolas Goñi

14 | PERTSONAIA | IRATI ZUBIA

**"Laguntasuna iruditzen zait sekulako potentzialitatea daukan harreman mota, Akaso horizontalagoa delako"**

Amets Aranguren

24 | NAZIOARTEA

**Erdialdeko Amerikako zain irekiak**

Maria Ortega

46 | KULTURA | DONOSTIAKO ZINEMALDIA

**"Film sexualki esplizitua izatea loturik dago errealitate bati, Maspalomasi"**

Gorka Peñagarikano

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

**Gobierno de Navarra**  **Nafarroako Gobernua**

### Jabetza

Komunikazio Biziagoa  
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

### Erredakzioa

Axiér Lopez, Eneritz Arzallus,  
Estixu Eizagirik, Gorka Peñagarikano,  
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,  
Lander Arbelaiz, Leire Artola,  
Manex Moreno, Maria Ortega, Mikel Garcia,  
Onintza Irureta, Urko Apaolaza,  
Xabier Letona, Zigor Oleaga

### Diseinua

Maialen Arana

### Argazkilaria

Dani Blanco

### Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

### Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte

### Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

### Banaketa

Olatz Korta

### Azoka

Mikel Olabide

### Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Soralueze,  
Bego Zuza

### Web garapena

Asier Iturralde

### Informatika

Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzarde parekidea: 72562 E

### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

#### Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus  
komunitatea@argia.eus

#### Telefonia

943371545

#### Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

#### Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,  
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA  
honako enprekin batera:

**antza**  
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

**iametza**
**ADUR** software  
productions

### Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,  
zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza  
aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Lizentzia hau baliagarria da testuentzat  
eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan,  
ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

Aldizkari honek ekoedizioaren  
baldintzak betetzen ditu.

Aitzarna ekologikoa:



bDAP202500064


**OLATUKOOP**

Ekonomia sozial eraldatzailearen  
sareko kide gara.

# Ausardia

Osasuna futbol taldeak bat egin berri du AHTren aldeko enpresarien plataformarekin. Baina, "kirola eta politika ez dira nahastu behar" "koinatuen" esaldirik gogokoena Bilbon gertatutakoaz besterik ez dugu entzun. 23 hilabetez jarraian estatu genozida batek normaltasunez hartu du parte Eurovisionen, Eurobasketen edota UEFAn eta bere harreman militar, komertzial, kultural, teknologiko eta diplomatikoez bere horretan jarraitzen dute Europan, estatuek Nazioarteko Justiziaren ebazpenei ere muzin eginda. Baina zorionez, herritarrak ausartu dira gobernu ustez demokratikoez egiten ez dutena egitera: ezin dugu genozidioa normalizatu. "Amaierarik tristeena" izan zela zioen Vocentoko egunkaririk salduenak. Gizatasuna eta duintasuna galdutzat ematen ez ditugunon pozerako.

dis





# Valle de Odieta-ren epaiketa: digestato kutsadura larria, antza, makroetxaldeak eragin zuen

 XABIER LETONA BITERI

**H**ilaren 2an egin da Valle de Odieta-ko makroetxaldearen aurkako epaiketa Iruñeko Justizia Jauregian. Epailleak ebatzi behar du ea 2021ean haien lur sailetan egindako isuri baten ondorioz, lur eremu horiek larri kutsatu zituzten ala ez, eta hura nork eragin zuen. Aditu gehienek aburuz, makroetxaldea izan zen. Epailleak irailaren 12rako finkatu du epaiketaren jarraipena: akusatuen txanda izango da eta aldeek ondorioak irakurriko dituzte.

Oraingoan akusazio zehatzari egin beharko dio aurre etxaldeak: bere inguruko lur sail ugari kutsatu dituela berea den HTN Biogás plantak sortutako digestatoarekin. Produktu hori nagusiki abereen kasu honetan behien- mindatik sortzen da, baina beste gai organiko batzuk ere izan ditzake, hala nola hirietako hondakin organikoak.

Akusatuak honakoak dira: Alberto Guerenáin Azpíroz, Pedro José Guerenáin Azpíroz, María Cilveti Oyarzun, Pedro María Cilveti Oyarzun eta Iñaki Guerenáin Azpíroz. Isuriaren garaian Valle de Odieta SLCKo Administrazio Kontseiluko kideak ziren. Sustrai Erakuntza eta Greenpeace ingurumen elkarteek osatzen dute herri akusazioa, eta bostentzat hiru urteko kartzela zigorra eskatzen dute. Fiskaltzak aldiz, horietako biren aurkako salaketa egin du, eta lau hilabete eta erdiko kartzela zigorra, zortzi hilabeteko isuna (20 euro eguneko) eta abeltzaintza-ekin lotutako ogibiderako desgaitasuna berezia eskatu ditu.

Defentsaren estrategia argia da: Valle de Odieta kutsatzaila gisa agertuko balitz ere, ezin ahal izatea leporatu akusatuei haiek direla errudunak. Nolabait, Ertzaintza eta Cabacas auzian antzekoa ebatzi zen: “Bai Ertzaintzaren pilotakada batek eragin zion heriotza, baina ez duguenez lortu jakitea zein ertzainak bota zuen pilota, ez dago inoren aurkako zigorrik”. Valle de Odieta kutsaduraren errudun ateratzen bada, dena den, auzi honek ezingo luke haren aurkako neurririk hartu, hori prozedura administratiboan epaitu beharko litzatekeelako.

Pibotekin egindako ihinztatze ureztatzeen ondorioz, digestatoa inguruko lurre-



Aditu gehienak bat etorri dira: lurraren eta malden ezaugarriengatik, kutsadura sortu zuen digestatoa Valle de Odieta-rena zen

tan barreiatu zen, balore ekologiko handiko ur-putzu bat kutsatu zuen eta Aragoi erreka bazterretaraino iritsi zen.

Akusatuaren defentsak aditu ia guztiei etengabe gogorarazi die Europar Batasunak baimentzen duela digestatoz egindako ureztatzea, eta hori ona dela; gehienek erantzun diote baietz, baina dagokion neurrian eginda, eta Valle de Odieta-ko digestato laginetan arriskutsuak diren osagaien neurriak legeak baimendutakoak baino askoz handiagoak zirela.

Kutsatutako eremuak babes bereziko guneak dira eta KBE Kontserbazio Bereziko Eremu izendapena dute. Ondorioz, baldintza bereziak bete behar dira, eremu horiek ureztatu ahal izateko.

Putzuko uraren laginei dagokienez, Nafarroako Gobernuak ur kontuetako lau adituak argiak izan ziren: “Laginak materia organiko gehiegi zuen, baita metal astunak ere, amoniako-nitrogenoa... han- hementika jasotzen ditugun ur laginetan ez gaude ohituak materia horien halako kopuru handiak ikustera”.

Defentsak adierazi du lurren goiko aldean, Valle de Odieta-rena gain, beste usiaketa gune batzuk ere badirela, eta horietatik ere etor zitekeela digestatoa, baina aditu gehienak ados daude: lurraren eta malden ezaugarriengatik, kutsadura sortu zuen digestatoa Valle de Odieta-rena zen.

Ingurumeneko bi foruzainak, bi basozainak eta bi biologoak bat etorri dira, haien ustez digestatoak kalte larria egin die ur-putzuaren bueltan bizi diren animaliei eta landareei: “Kutsaduraren unean, eremu hartan ezin zitekeen animaliarik bizi eta landaretza gehiena ere hilda edo lehorte bidean ageri zen”.

Defentsak behin eta berriro itaundu ditu adituak gisa honetan: “Ziur zaude hor animaliak bizi zirela? Ikusi duzue animalien gorpurik? Baduzue argazkirik?”. Uneren batean zakar adierazi zien biologoei: “Bai, Atilaren zaldia ere egon zitekeen han, baina non dira ‘bitxoek’ argazkiak edo probak?”. Biologoek azaldu zuten, animaliek, oro har, alde egiten dutela kutsaduraren aurrean:

Epaietaren bezperan, Nafarroako Gobernuaren Ingurumen Departamentuak Valle de Odieta-ri ingurumen baimena eman zion, makroetxaldearen usiaketa Natura 2000 Sareari eragingo ez diolakoan. Hori, ordea, kontraesanean dago epaiketa honetan ikusten ari denarekin, zantzu guztien arabera, Valle de Odieta gertatutako kutsadura larriaren errudun atera baitaiteke. ●

## BERRIKETA GUTXI

# Euskal. Jai.



IMANOL EPELDE  
27zapata.eus

**A**ste honetan, etxeko lanak jarriko dizkizuet. Hori gertatzen zaigu urte luzetan irakaskuntzan aritu garenoi: dena bihurtzen dugu arbel, etxeko lan eta ikas-egoera. Demagun euskal jai bat antolatu behar dugula herrian. Zer egitarau proposatuko dugu? Nola ospatu, dantzatu eta kantatuko dugu *euskal* hori?

Testuingurua nik emango dizuet: Zarautzen, irailaren 9an, urtero ospatzen dugu euskal jai. Orain dela 100 urte baino gehiago sortu zen eguna: Zarautza etortzen ziren markes eta kondeen udako egonaldia luzatzeko, eta bide batez, gure bizi-ohiturak erakusteko. Orain, gu bihurtu gara markes: garbitzaile gero eta gehiago dauzkagu etxeetan, zaintzaileak bestela, eta prestatutako janari gero eta gehiago sartzen zaigu tuperretan. Euskal jai egunean gerrikoa nola lotu eta txapela ondo nola jarri asmatu ezinean ibiltzeko.

Etxeko lanak egiten laguntzeko galdera batzuk segidan, bakarka edo taldeka egiteko: 1) Zer helburu beharko luke euskal jai batek gaur egun? 2) Zer adieraziko diegu euskaraz ondo jakin eta erdaraz bizi diren gero eta euskaldun gehiago horiei? 3) Zer eskainiko edo eskatuko diegu gaurko gazteei? 4) Zer herrira bizitzera etorri zaizkigunei?

Euskarak talo, erroskilla eta txakolin gustutik haratago, trikitia eta gaita-joleez haratago, behar ditu erronka eta jolas berriak, jai berriak, errito berriak. Talo postuez gain sushi postuak, poke bowlak. Gure zapore bihurtu behar ditugu enpanadak, perrerekeak eta sancochoak. Txorizo eta haragi egosia bezain euskaldun behar ditugu bihurtu munduko zaporeak. Erromeria bat bezain euskaldun trap kontzertu bat.

Gure burua asmatzen segi beharko dugu garai aldakor eta *inteligente* hauetan. Jaiak ere bai. Proposamen bat. Euskalduna jauregian elkartzea aurtengo abenduaren 3ko egitaraua elkarrekin prestatzeko, etxeko lanak egiten dituztenekin. Egin ez dituztenek talo kolpe bana jasoko dute. Edo akaso hobe, arepa kolpe bat. ●

## EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



# Udako postalak



ULA IRURETAGOIENA

**I**kasturtearen hasiera, lankideekin, laneko deskantsuan, kafe baten inguruan, atzean utzitako hilabeteen oroimenak mahairatuz. Deskantsua paraje desberdinetan egin izanagatik ez ditugu alboratu gizarte gisa ibiltzen dugun garaia. Distantzia hartu eta geldinean gaudenean gai gara hiriko zenbait errealitate harrapatzeko, *souvenir* gisa.

Suitzako Basilean etxe trukaketa egin duenak kontatu du hiriko hondakin domestikoen jasotzea oso arduratsua dela, eta etxeko hondakinen erregaiarekin hiri osoko (!) kalefakzio-sistema sortzen dela. Hondakinen kudeaketa eta ekonomia hirirtartzean eta onura kolektiboa izaterakoan, norbanakoaren inplikazio naturala gertatzen da (fact). Horrelakoetan euskal gizartearen beste liga batean jokatzeko duela ematen du; hondakin domestikoen kudeaketan gardentasun falta dago gizartearen konfiantza erakartzeko. Nola eta zertarako burutzen den birziklapena, askoren mesfidantza.

Paris aldean, kale askoren eraldaketak arreta ematen omen du. Bizikletaren presentzia handiaz gain, kaleen osaeran landaredia espazio handia hartzen hasia da, zuhaitz eta zuhaixken bizitoki zabala, oinezkoari eta landareei emandako espazioa antzerakoa izateraino. Itxura aldatzearekin batera, hiriko lorategigintza eta lorezainen kopurua nola eta zenbatean aldatuko ote zen, azpiegitura berdeak leku bat topatuko balu hiriaren ekonomian. Gasteizko lorazainen greba buruan.

Bizkaiko Busturialdean uda igarotzen duenak esan du urteroko betiko txiringitoan lehen aldiz ez dutela lekuri aurkitu, ingelesek hartua zutela. Bertakoentzako altxor-lekuek gureak izateari uzten diotenean, kolonizazio sentsazio itogarria sentitzen da, eta ardurak kolpatzen gaitu. Egerra baten deskontrolan gaude dagoeneko, ala urrutiago iritsi daiteke lurraldeen okupazioa kanpotar eta dirudunen aldetik? Baina gu garenean beste lurraldeetan sartzen garenak, denok festaren partaide garela ohartzen gara. Musika nork etengo duen arte, jarraituko dugu dantzaz... ●



IREKIAEUS

## CAFek Israelekin kontratua eteteko asmorik ote du?

**ZIGOR OLABARRIA OLEAGA**

**E**tengo du. Hori da kaskora supituan etorri zitzaidan pentsamendua, gosaria ahoan eta Euskadi Irratia sintonian, Imanol Pradales lehendakaria entzun nuenean CAF “gogoeta etikoa” egitera gonbidatuz, Palestinako lur okupatuetan trena eraikitzeke duen kontratua eten edo ez erabaki dezan. Zeren eta, barka mesfidantza, zaila egiten zait sinesten bat-batean jeltzaleek etika patrikaren gainetik jartzea: Lemoiz eta beste bi zentral nuklear eraiki nahi izan zituztenak, erraus-tegiak edo industria militarra bultzatzen dituztenak, edo Israeleko enpresa sionistekin Ertzaintza formatzeko kontratuak edo segurtasun arlokoak egin dituztenak.

Elkarrizketa propio berriz entzun eta nire susmo pelikuleroa indartu da, ohar-kabea pasatu den ñabardura dela eta: “CAFek badauka bere gogoeta egiteko bidea (sic), eta guk Jaurlaritzatik errespetatuko dugu hartuko duen erabakia, jarraitzea edo etetea baldin bada”. Jaurlaritzak “errespetatu-ko” du CAFek “hartu-ko” duen erabakia; hau da, enpresa kontratua eteteko aukera hausnartzen ariko balitz bezala hitz egin zuen Pradalesek. Zerbait daki lehendakariak? (gogoratu dezagun, bide batez, Jaurlaritza CAFen akzioen %3aren jabe dela). Zerbait daki, eta ikusita euskal jendartearen Israelekiko etsaitasuna areagotzen ari dela, balizko kontratu etete horren aurrean aurretiaz toki *egokian* kokatu nahi du? (“Txalotzen dugu erabakia, guk geuk bultzatu genuen hausnarketa hori”). Izan zitekeen, “gogoeta etikoa” egiteko komenigarritasuna horrela argudiatu baitzuen: “Badago giro bat, eta kontutan hartu behar da”.

Zer esan behar diote EAJri herritarren iritzia jasotzeko bere barne azterketa demoskopikoek, CAFen kasuan Jaurlaritzak publikoki etika patrikaren gainetik kokatzeko. Hori da bururatu zitzaidan bigarren pentsamendua. Eta bakarra behintzat ez naiz, Pradalesen hitzak lagun bati komentatu eta nik ezer esan aurretik horixe bera esan baitzuen.

CAFek kontratua etengo du? Agian bai, agian ez; oxala. Euskal Herritik Palestinen aldeko, sionismoaren eta basakeriaren aurkako borrokari egin diezaiokegun ekarpen handienetakoa baita. Nazioarteko oihartzuna izango luke eta kontratu gehiagoren etetea ekarri lezake, mundu mailako boikot, desinbertsio eta zigor kanpaina hauspotuko luke.

Baina demagun artikulu honen hipotesia eldarnio hutsa dela, lehendakariaren hitzen interpretazioan urrunegi joan naizela; genozidioak genozidio eta euskal jendartearen iritziak iritzi CAFek ez duela inongo asmorik milioika euro irabazteari utzi eta kontratua eteteko. Gaur gaurkoz, gehitu beharko genuke, agian bihar bai. Nork sinistuko luke orain bi urte EAJko lehendakari batek horrelako adierazpenik egingo zuenik? Antolakuntza eta presio herritarrak ematen du emaitzarik. ●

# 2.200

hildako utzi ditu gutxienez Afganistanen izandako lurrikarak. 6,0 graduko lurrikara eta hainbat erreplika izan dira abuztuaren 31tik irailaren 1erako gauean. Kalte oso larriak eragin ditu herrialdearen ekialdean. Ehunka etxe suntsitu ditu dardarak.

# 5.869

euro balio du batez beste metro koadroak Donostian, maximo historiko berri bat Donostiako etxebizitzaren prezioan. Batez beste, 500.000 euro inguruko prezioa dauka 80 metro koadroko etxebizitza batek hiriburuan.

# 20.367

## milioi

eurokoa da, dagoeneko, Espainiako zentral nuklearrak itxi eta hondakin erradioaktiboa tratatzeko Espainiako Gobernuaren aurrekontua. Urtebetean 165 milioi euro handitu da gastua.

*“Poliziaren abusuak eskala handikoak izan ziren eta garai batean baino gehiagotan gertatu ziren”*

**MARÍA CHIVITE**  
**Nafarroako Gobernuako**  
**lehendakaria**

Hitz horiekin erantzun dio UPNri, honek salatu ostean Nafarroan eskuin muturreko taldeen eta Poliziaren indarkeria aztertzen duen batzordeak ia edonor hartzen duela biktima gisa.

2025-09-04



*“PENTSIOAK OSATZEA EZ DA BEHARREZKOA”*

**Mikel Torres Eusko Jaurlaritzako lehendakariordeak** hitz horiekin jakinarazi du pentsio txikiak osatzeko herri ekinaldi legegilea eztabaidatzeari ezezkoa eman diotela, babes hori dagoeneko “sisteman txertaturik” dagoelako. Hitzok gogor kritikatu ditu Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak.

2025-09-02

*“Hondarribiko alardearen bi aldeak parez pare jartzea da zilegitasun bera ematea zapaltzaileari eta zapalduari”*

**UXOA ANDUAGA**  
**Jaizkibel konpainia**  
**berdinzaleko kidearen hitzetan,**  
“elkarriketa sustatzea ongi dago, baina udal gobernuaren estrategiak ez du bide luzerik, helburuak ezin du kontsentsua izan, ez baita kontsentsu kontua, eskubide kontua baizik”.

ARGIA.EUS (2025-09-05)



## TEKNOLOGIA

## Teknologia bizigarriak?



DIANA FRANCO

**T**eknologien azken joerengatik galdetza aritu da mastodon.eus-eko erabiltzaile bat, ezagutzen zuenak ez baitzion zirrarak eragiten. Zer pentsatua eman digu zenbaiti, eta jaso dituen erantzunak oso ezberdinak izan dira.

Nik adierazi diot teknologiek gizakion arteko harremanetan duten eraginean begia jartzen nahikoa pizgarri dudala, teknologiek munduan errealitate ezberdinak sortzeko duten gaitasuna ulertzen saiatzen ez naizela aspertzen. Nire erantzuna berrirakurtzerakoan, ohartu naiz zeinen finkatuta nagoen teknologiek eragin dezaketen zapalkuntza ereduetan. Baliteke, gauza berriak sortzeko ezagutza faltan, hori dela egin dezakedan ekarpen bakarra, edota urtetako esperientzia dela eta, erosotasunean jausi naizela. Dena den, pentsamendu horrekin batera berriro Donna Harawayren hitzak burrunbaka hasi dira nire baitan: "Behar dugu beste errealitate bat pentsatu, irudikatu, behar dugu besteekin errealitate hori josten hasi...". Uf, erraza dirudi, baina lan asko da, nork du gaitasun eta indar hori?

Galdera berari erantzuten, beste pertsona batek oso ikuspuntu ezberdina partekatu du, sorkuntzari eta komunitateari lotua. Honako proiektu teknologikoak aipatu ditu, teknologia bizigarri bezala:

- **PostmarketOS:** Mugikorrentzat Linux sistema eragilea.
- **Meshtastic:** Irismen luzeko irratiekin, komunikazio azpiegiturarik gabeko lekuetan sareak sortzea ahalbidetzen duen proiektua.
- **Reticulum:** Tokiko sareak sortzeko balibidea.
- **Veilid:** Komunikazioak pribatutasunean oinarrituko dituzten aplikazio garapenak sortzeko plataforma eta protokoloa.

Partekatu dituen teknologia horiek oso gaineratik kuxkuxeatu ondoren ohartu naiz zeinen zirrargarria den bizi dugun garaia, teknologiek sor dezaketen gizartearen antolaketari dagokionez. Bada munduko gizateriaren baitan gizaki lagin bat, gizatasun sakonekoa, teknokapitalismoa gainditu duena: pentsatzeko, irudikatzeko eta besteekin sortzeko gaitasuna duena, denon onurarako. ●

## NAZIOARTEA



## Argentinako ultraeskuinak lehen kolpea jaso du hauteskundeetan

AXIER LOPEZ

**P**eronismo klasikoak Buenos Aires probintziako hauteskunde legegileetan botoen %47,2 lortu du. Javier Mileiren La Libertad Avanza hautagaitza 13 puntura geratu da (%33,7). Emaita esanguratsua da bozka emateko eskubidea duten argentinarren %38 Buenos Aires probintzian biltzen delako.

"Gaur porrot argia izan dugu hauteskundeetan, eta onartu beharra dago", esan du Javier Milei presidenteak igande gauean, baina "gobernaren politiketan ez dugu milimetro bat bera ere atzera egingo, are gehiago, bizkortu eta sakondu egingo dugu".

Mileiren agintaldiko lehen hilabeteetan, mundu osoan ezagunak diren albiste-agentzia askok, Reuters kasu, Bloombergen edo Wall Streeteko enpresen txostenetan oinarritutako albiste ugari argitaratu zituzten, Mileiren "mirari ekonomikoa" justifikatzeko eta sustatzeko. Inflazioa menderatu eta pobrezia murriztu zuela zioten. Mezu triunfalista horiek aspaldi desagertu dira. Milei boterera iritsi eta 20 hilabetera, ezarri dituen murrizketa masiboak langile-klaseak ordaindu ditu, eta aldiz, boterera heldu aurretik diskurtsiboki berak hainbeste kritikatzeko zuen "kasta" politikoak lapurretan jarraitzen du. Bere senide gertuenetik hasita: bere arreba Karina Milei jomuga publikoan dago.

"Motozerra-plan" ospetsuaren barruan, Mileik murrizketa handiak bul-

tzatu ditu desgaitasun edo dibertsitate funtzionalen bat duten pertsonentzako laguntzetan eta babes publikoan. Berriki argitara atera diren audio batzuetan, Karina Mileirekin lotutako laborategi pribatuarekin egindako kontratu publikoetan eroskeria salatu du Javier Mileiren oso hurbileko pertsona batek (Diego Spagnuolo). Presidentearen arreba %3ko "komisioa" kobratzen zuela ziurtatu du.

### PERONISMOA, BERRIZ ERE

Axel Kicillof gobernadore peronista sozialdemokratik Mileiren gobernu neofaxistaren aurkako oposizioaren figura nagusi gisa gailendu da, urriaren 26ko hauteskunde legegileei eta 2027ko hauteskunde presidentzialei begira. Atzera ere alternatiba gisa agertu da peronismoa: mugimendu transideologiko hori, ezkerre eta eskuineko barnebiltzeko gai dena eta haizeak nondik jotzen duenaren arabera neoliberalismoari heldu edo Hego Amerikako olatu aurrerakoiekin bat egin izan duena. Alderdiko presidentek Cristina Fernández Kirchner izaten jarraitzen du, etxeko espetxealdia betetzen ari bada ere. Garaipenaren ostean Kicillofek adierazi du ezin dela "obra publikoa geldiarazi, erretiratuei eraso egin, desgaitasunen bat duten pertsonak abandonatu... Argentinako osasuna, hezkuntza, zientzia eta kultura ezin direla alferrik galtzen utzi oihukatu dute hauteskontziekin. Ezin da gorrotoz, tratutxarrez eta irainez gobernatu". ●



## Hizkuntzen museo txiki bat Parisen

 KARLOS ZURUTUZA

**S**ena ibaitik metro eskasera egon arren, ez dago Mundolingua museoa aipatzen duen turismo gidarik. Kasualitateak baino ez gaitu eraman horra. Nolanahi, horrela aurkitzen dira, maiz, hiri baten sekretu gordean.

Parisko rue Servandoni-n dago, Pont Neuf-etik hamar minutu eskasera. Sartu bezain laster, 70 bat urteko emakume batek zure hizkuntza zein den galdetuko dizu. Horrelako toki batean, jakin bane-kien gogokoa izango zuela nire erantzuna. “Euskara? Zoragarri! Ba al zenekien hizkuntz isolatua dela?”, bota zidan Elisabeth Djukic-ek (hala du izena), bere begi urdinez erantzun baten zain. Sarrera alboko arbel txikiari begiratu zion gero; bertan apuntatu zuen Mundolingua izeneko museo haren hogeita batgarren bisitari euskalduna nintzela 2013tik. Urte hartan ireki zen museoa. Kopurua hutsala iruditu zitzaidan, are harrigarriagoa bisita amaitu ondoren.

Normandiakoa den Elisabethek bi iloba dauzka Bidarten. Ikastolara joaten dira biak eta harro dago horretaz. Beste edozein hizkuntza legez, altxor hutsa da euskara. “Europako hizkuntz isolatu bakarra gainera”; hala berretsi zuen berak. Gauza gehiago galdetu nahi nizkion bere familiarri eta, oro har, bere bizitzari buruz, baina denbora izango nuen horretarako.

Beste bisitaririk ez zegoen, beraz, bisita gidatu bat eskaini zidan. Txikia bezain bitxia den museo honek bi solairu ditu. Lehenengoan hizkuntzalaritzaren oinarritzak errepikatzen zaie: fonemak, gramatika, lexikoa... eta baita hizkuntzen irakaskuntzari ere. Noizean behin, ikasle-taldeak ohikoak ez dituzten soinu eta alfa-

betoetara gerturatzeko dira bertan, eskuzko jolasen zein jolas interaktibo bidez. Beste ehunka liburu zaharren artean, XVI. mendeko Calapini hiztegi bat ere badago, eta “hizkuntza zailenak” dioen panel batean, txinera edota klik hizkuntzak topa daitezke. Baina ez da hori oso zientifikoa. “Hizkuntzak ez dira ez errazak, ez eta zailak ere. Norberaren ama-hizkuntzaren arabera da hori”, gogoratu zuen Elisabethek. Jarraian, bonbillez jositako beste panel bati erreparatu genion: fonemaren bat asmatzen genuen bakoitzean, argi gorri bat pizten zen.

Babelgo eskaileratik behera, bide erdian, gela txiki batean, plasmazko pantaila bat eta egurrezko bi besaulki zeuden. “Mikrozinea” zen, baina pantailarekin arazoren bat zegoen, horregatik ez zuen piztu. Washingtoneko hizkuntzen museoa etorri zitzaion burura orduan. Askoz handiagoa da, baina, inondik ere Pariskoa bezain abegikorra. “Honek arima du; beste horrek, aldiz, merkataritza gune bat ematen du”. Arrazoi zuen. Interneten Planet World bilatzea besterik ez dago.

Era guztietako objektuen pilaketa espero nuen beheko solairuan: hiztegi zahar gehiago, hizkuntzalari nabarmenen argazkiak (Chomsky, Saussure, Sapir...) hormetatik zintzilik... Zenbait alfabeto-tan idazteko makinak daude, arabiera, hebreera, zirilikoa edota armeniera haien artean, bai eta 2.100 karaktereko txinatar bat ere. Idazteko makina baino, inprenta itxura du. British Museum-ek enkarguz egindako Rosetako Harriaren erreplika bat ikusi nuen eta Bigarren Mundu Gerran kode naziak deszifratzeko erabiltzen zen Enigma makina. ●

## MOTZEAN

Elkarretaratzea eta asanblada egin dituzte Marieneko lurren defentsan eta joan den uztailan izenpeturiko lurren salmentaren kontra.

“Txistuak, mehatxuak eta irain sexistak” jaso dituzte Laudioko jaietan, txosnagunean izandako eraso matxista bat salatzeagatik.

Ertzaintza beste 11 pertsona ari da ikertzen, uztailaren 20an Azpeitian izandako liskarren harira.

Donostiako epaitegi batek aurretik emandako epaia berretsi du EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak: Gipuzkoako Aldundiko zaintzaileek ez dute euskara jakin beharrik.

Corellako eskolan D eredua eskatu duten 11 familiei ezezkua erantzun die Nafarroako Gobernuak, arrazoirik eman gabe.

Caddo hizkuntza jariatasunez hitz egiteko gai zen azken hitzuna hil da, 95 urterekin. Caddo Nazioa, gaur egun, Oklahoma estatuaren hegomendebaldean dago kokatuta.

Mirentxu Loyarte euskal zinemagile aitzindari iruindarra 87 urterekin hil da.

# MUNDUKO AUZITEGI GORENAK KLIMARI BURUZKO ESTATUEN ARDURAK ARGITU IZANAK ZE ALDAKETA DAKAR?

Garaipen historikotzat jo dute hainbatek: duela sei urte Ozeano Bareko estatu zaurgarrietako ikasle talde batek bultzaturiko ekimen baten ondorioz, Nazio Batuen auzitegi gorenak iritzia plazaratu du uztailaren 23an, zeinak munduko estatuek klima aldaketari begira dituzten betebeharrak zehazten dituen. Legalki loteslea ez izan arren, erreferentzia sendoa izan daiteke estatu kaltetuenek galerak konpentsatzeko eramanen dituzten auzietarako.

 NICOLAS GOÑI

**U**rte hasieratik metatu dira klimaren inguruko berri txarrak: hamaika atzerantzko erabaki politiko AEBetan, mundu mailan eragina izanen dutenak; klima aldaketak indarturiko hondamendi ugari –Kanadako edo Europa hego-mendebaldeko suteak kasu–; eta ozeanoen zirkulazio sakona gelditzeko arriskua uste baino hurbilagoa dela erakutsi izana –Europako klima zeharo eta hamarkada pare batean eraldatuko diguna–. Panorama ilun honetan guti dira gertakari itxaropentsuak, baina halako bat izan zen uztailaren 23koa, hainbat ekintzailek, kazetarik eta eskubide adituk historikotzat jo dutena. Egun hartan, Nazioarteko Justizia Auzitegiak, Nazio Batuen auzitegi gorena denak, iritzi aholkulari bat –*advisory opinion*– plazaratu zuen, munduko es-

tatuek klima aldaketari begira dituzten betebeharrei buruzkoa.

Pacific Island Students Fighting Climate Change (Klima Aldaketaren aurka Borrokatzen diren Ozeano Bareko Uharteen Ikasleak) gazte antolakundea dugu iritziaren plazaratzea ekarri duen ibilbidearen oinarrian. Zuzenbidean ikasle, Vanuatuko Port Vilako campusean antolatzen hasi ziren 2019an, irakasleek jarritako erronkari erantzuteko: klima aldaketari ekiteko, nazioarteko eskubidea nola erabili? Galdera horretatik abiatuta, Nazioarteko Justizia Auzitegira jo zuten, eta Vanuatuko Gobernuak lagundu zien bertze estatuen bermea lortzeko. Luzea izan da –sei urte baino gehiago– baina 123 estatuen babesa jasorik, azkenean emaitza lortu dute, Nazioarteko Justizia Auzitegiak adierazi baitu estatuek bete-

behar legala dutela klima aldaketa murrizteko, baita eragindako kalteen konpentsazioak hornitzeko ere.

Munduko hainbat uharte-estatu txiki txalotu dute auzitegiaren erabakia. Karibeko Saint Vincent eta Grenadinak estatuko lehen ministro Ralph Gonsalvesek eskubide garaipen historikotzat jo du: “Oso interesgarria iduritu zait iritziak dioela klimari buruzko hitzarmen garrantzitsuetan adieraziak diren betebeharrak ez direla bakarrik prozesalak; oinarritzko betebeharrak legalak sortzen dituzte.”

## ZER DIO IRITZI HAREK?

Berotegi efektuko gasen (BEG) isurketen ardura duten eta klima aldaketaren eragina gehien pairatzen duten estatuen arteko auziak izatekotan, iritzi horrek hainbat elementu zehazten ditu. Bereziki, gaur egun arduren atribuzioa aski argia dela dio, kausen determinazioa ahalbidetzeko eta estatu batek BEG isurketak murrizteko neurriak hartu beharra bete ote duen argitzeko. Estatu baten jurisdikziopean diren sektore pribatuak isurketak –erregai fosilen sektorearenak zehazki– ere estatuen ardurapean dira iritzi horren arabera, Ingurune Zuzenbideko Institutuak 8 (*Environmental Law Institute*) dioskunez.

Auzitegiak dio klimari buruzko nazioarteko hitzarmenak –1997ko Kyotoko protokoloa eta 2015ko Pariseko hitzarmena– direla klima aldaketari dagokionez nazioarteko erantzuna arautzen duten tresna legal nagusiak. Bi hitzarmen horiek izenpetu dituzten estatuei eska-



Vanuatuko zuzenbideko ikasle talde batek Nazioarteko Justizia Auzitegira jo zuen 2019an, klimari buruzko estatuen ardura zehaztea eskatzeko. Aurtengo uztailan emaitza lortu dute.

tzen zaie arintze eta egokitzapen neurriak hartzea eta –gehiegitan ahazten dena– kooperatzea. Herrialde industrializatuak ere behartuak dira BEG iturri eta xurgatzaileei buruzko kontrol neurrien inguruko informazioa plazaratzera.

Eta hitzarmen horiek izenpetu ez dituzten –edo, AEB bezala, horietatik atera diren– estatuei dagokienez zer? Ohiko nazioarteko legediak behartzen ditu halere ingurune-kalteak saihestera, arretaz jokatzea eta eskuragarri dituzten baliabide guztiak erabiltzera horren alde, bakoitzak dituen ardura eta gaitasunaren arabera.

### ONDORIO LEGALAK

Ingurune Zuzenbideko Institutuak dioenez, iritzi honetan ezohikoena da erregai fosilen sektorearen aipatze esplizitua, hainbat COP gailurretan petrolio ekoizlearen presiopean saihestu zena. Erregai

fosilen erauzketan eta kontsumoan estatutuen baten jokaera –erauzteko baimeak edota diru-laguntzak barne–, izan daiteke nazioarte mailako akats legal bat, estatuari leporatzen ahalko zaiona. Sektore pribatu baten isurketak mugatzeko araudirik ez hartzea betebeharren urraketa dela dio iritziak. Horren arabera, gaur egungo estatu asko dira beraien betebeharrak urratzen ari.

Auzitegiak dio halako urraketa kasuetan estatuen ardura arauak direla aplikatzen: estatu batek jokaera kaltegarria geldiarazi behar du, ziurtatu ez dela errepikatuko eta egindako kalteen konponketa hornitu. Galera eta kalteen konpentsazioa aipatu genuen ARGIAren 2.804 zenbakiko *COP27-ak klima kudeatzeko eredu falta eta legedia ekonomikoen indarra agerian utzi ditu* erreportajearen. Gailur horretan adosturikoa ez zela aski

salatu zuten hainbat herrialde zaurgarri. Iritzi berri honek baliabide legal berri bat emanen die konpentsazioak eskatzeko.

Auzitegiaren iritziak azpimarratzen du, halere, arduren zehaztea auzi auzi egin beharko dela. Salaketa ezartzen duen gobernuak frogatu beharko du gertaera edo tendentzia bat klima aldaketak eragin duela, eta estatu batek edo multzo batek horren ardura duela. Auzitegiak dioenez, zientifikoki posible da isurketa globalei estatu bakoitzaren kontribuzioa zehaztea; eta ondoren, arduraren egotea eta partekatzea auzi auzi egin beharko dira.

Iritzi honetan garrantzitsua da betebeharrak nazioarteko komunitateari buruzkoak direla, baita hitzarmen bereziak izenpetu dituzten estatuei buruzkoak ere. Horrek estatu askori aukera ematen die betebeharren urraketa salatzeke.

### INPLIKAZIO KONKRETUAK

Iritzi aholkulari honen ahulezi nagusia zera da: ez da legalki loteslea. Gainera, ez ditu aipatzen klima justiziaren aldeko mugimenduaren asmo handiko osagaiak, hala nola, naturaren eskubideak, lurraldez kanpoko juridikzioa, edo baliabide banaketaren inguruko kezak.

Baina auzitegiaren estrategia logikoa da: sistema klimatikoa desorekatzen duten estatu edo sektoreak seinatu baino, marko zabal bat ezartzen du, halako kasuak etorkizuneko auzitan epaitzeko. Nazioarteko Justizia Auzitegiak hamabost epaile ditu, kontinente guzietakoak, eta tartean, gaur egungo kutsatzaile handienak diren AEBetako eta Txinako bana. Osaketa horrek ordezkagarritasun eta zilegitasun handia ematen dizkio iritzia. Legalki loteslea ez izan arren, erreferentzia sendo bat ematen die auziak abiatuko dituzten herrialde kaltetuenei. Ez da gutxi. ●



ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

[zinkunegioptika.com](http://zinkunegioptika.com)



## Irati Zubia

JAKINTZARI BEGIRUNEZ



# LAGUNTASUNA IRUDITZEN ZAIT SEKULAKO POTENTZIALITATEA DAUKAN HARREMAN MOTA, AKASO HORIZONTALAGOA DELAKO



Amonarena zen etxean bizi da Irati Zubia duela urte batzuk, lagunekin. Donostiako atari zaharren usaina dauka atariak. Zaintza existitzen ez den mundu batean izan nahiko luke zaintzaile eta eskarmenturik ez zaio falta: irribarre zabalaz hartu nau etxean Aste Nagusi betean, sofa urdina eta zentzumenak prest. 14 ditu abuztuak, “93 egingo lituzke gaur amonak”, esan dit.

AMETS ARANGUREN ARRIETA DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

### Donostiar bat Donostiako Alde Zaharrean bizitzen. Geratzen zarete batzuk, orduan.

Bai, bagaude [barreak]. Eta nik errealitate hori argi utzi nahi dut, bestela Eneko Goiari arrazoia ematea izango litzateke. Sei urte daramatzat hemen eta sumatu dut turistifikazioa, baina, aldi berean, ikusten ditut Donostiako Piratak indartsu, Guardetxea okupatu dutela duela gutxi, Birunda ere tarte batez okupatuta egon dela Alde Zaharraren bihotzean... Inportantea iruditzen zait parte hori ere aldarrikatzea. Donostiaren irudi turisti-

fikatuarena aspalditik dator, baina garai hartan ere baziren beste Donostia batzuk eta horiek guztiak presente edukitzea garrantzitsua da. Ez dakit, igual behar dugulako errelatoa osatu gero ekintzari lotu eta gauzak egiten segitzeko.

### Filosofiako doktoregaia zara momentu honetan.

Bai, beka bat izan dut lau urtez. *Guay* egon da lanpostu bat edukitzea, baina nahiko lanpostu prekarioa izan da. Doktoregaia naizela esaten dut, baina

langabezian nago oraintxe eta honekin zerikusirik ez duen lan batean hasiko naiz laster.

Badaude tesi bat egiteko erromantikoagoak diren beste bide batzuk, baina ni akademiaren parametroetara egokitu naiz bete-betean: argitalpen bidezko tesi bat egin dut, ibili naiz kongresuetan eta abar. Eta ez da batere mundu samurra. Ziurgabetasun handia dago, aldizkarien mundua gogorra da, oso konpetitiboa eta parametro merkantiletan mugitzen da. Filosofia egiteko oso modu zehatza da; oso zientifikoa.



# Irati Zobia Landa

DONOSTIA, 1997



Donostiarrak da Irati Zubia. Antiguakoa izanagatik, Alde Zaharrean daramatza azken urteak eta bertan geratzea du desio. Filosofiako gradua eta ikerketa masterra egin eta berehala hasi zuen bide akademiko profesionala doktoregai gisa EHU: egia-ostea, gezurra eta hizkuntza-zen filosofiaren inguruko tesia bukatzeko azken zertzeladak besterik ez zaizkio falta. Maite du filosofia, baina literaturaren bueltakoak dira bere testu kuttunenak. *Berria*-n ere ari da egun, zutabegile.

Ez diot utziko filosofoa izateari edo filosofiarekin harremana edukitzeari, baina idealizatzen nuen mundua zen filosofo-ikerlari izatearena eta gerora deskubritu dut akademia gainetik pasa zaidala pixka bat. Nolanahi ere, aberasgarria izan da, noski.

**Filosofiarenetik aparte, beste mundu askotan ere bizi zara. Arantza Santesteban eta Iratxe Retolaza elkarrizketatu ditu berriki Itziar Ugartek *Berria*-n eta hori izan omen zen biak elkartzeko aitzakia: ez-ohiko bideak hartu izana.**

Zirrarak bizi dut gauza berrietan trebatzea. Bai Arantza eta bai Iratxe bidelagun izan ditut horretan, biek kointziditu dut ikastaro edo tailerretan. Elkarrizketa horrek ilusioa egin zidan uste nuelako oso gure belaunaldiko kontua zela dispersioa Gustatzen zait bide asko zabalik edukitzea eta nahiko hiperaktiboa naiz zentzu horretan, baina gero kristoren angustia ere ematen dit, egonkortasuna sumatzen dut faltan. Etxean ikusi dudana oso kontrako bidea izan da: gurasoak poztu dira nire bideaz, baina beti dago hor “egin oposizio batzuk” hori.

**Angustiak deserosotasunetik asko du. Zer egiten du gehiago horrek, eraiki ala suntsitu?**

Izan daiteke blokeatzailea alde batetik: deserosotasuna eta horri lotzen zaizkion sententzio eta minak sistemaren tresnak dira, bide normatibora bideratzen zaituzten emozioak dira, lotsa edo beldurra izan daitezkeen bezala.

Hala ere, uste dut emozio positiboak lehenesten diren mundu batean bizi garela, joera daukagu gatazka ezabatzeko, botere-harremanak existituko ez balira bezala jokatzeko. Baina mina eta deserosotasuna lehen lerroan jartzea oso eraldatzailea iruditzen zait. Jule Goikoetxeak esaten zuen: “Bakea ez da existitzen, feminismoa bai”. Uste dut deserosotasunari beldurrik ez izateko pista bat dela, hau modu eraldatzaile batean ulertzeko. Emozio deserosoak ere badira amorrua, herra... Eta uste dut horiek badutela sekulako

potentzialitatea. Ni, behintzat, mobilizatzen naute.

***Berria*-ko kolaborazioengatik ezagutuko zaitu jende dezente. Zaila da aipu edo erreferentziarik gabeko zutaberik topatzea zureen artean.**

[Barreak] Hor badago bizio bat akademiatik heldu zaidana, baina interesgarria iruditzen zaidana. Ilusioa egiten dit, nahiz eta zuri nire zutabea kaka bat iruditu, zuk beste erreferentzia horiek eramateak; “nik esaten dudana agian ez da hain interesgarria, baina begira jende honek zer egin duen”, pentsatzen dut.

Eta balio dit ere umiltasun ariketa bat egiteko, hausteko jenio indibidualaren ideiarekin, ez zaidalako batere gustatzen. Ni neu ez naiz inoiz izango hain originala hutsetik ezer sortzeko, baina uste dut inor ere ez dela. Aitortza ariketa bat ere bada, jakintza disidenteak, adibidez, gure egin ditugulako inongo errespaturik gabe. Begirunea izan behar zaio jakintzari, hemen inor ez da hain azkarrak. Eta gaur egun uste dut hori galdu dela, batez ere etengabe eman behar dugulako gure iritzia.

**“  
Zaintzaren ajeak askoz  
errazago heldu naiz  
ulertzerak Annie Ernauxen  
liburu batekin, ni neu  
zerrendatzen hasiko  
banintz baino”**

**Zein diferentzia dago jakintzaren eta egiaren artean? Betiere kokatuak izanda biak.**

Hori da nire tesiko galderetako bat, oraindik ebatzi ez dudana, baina ea... Nik uste egia dela kontzeptu arauemailea. Ez da existitzen egia absoluturik edo egia modu dogmatikoan aurkezteko modurik, niretzat egia kontzeptu bat da, egia dena eta ez dena bereizteko, eta zentzu horretan erabaki ahal izateko zer sinetsi, zer justifikatu, zein muga finkatu... Oinarrizko kontzeptua da, adibidez, fikzioa eta errealtatea edo uste bat eta jakituria bereizteko, edota salaketa egin ahal izateko.

Eta jakituria iruditzen zait gehiago dela uste pertsonalak baino justifikatua dauden usteen multzoa.

Ni kokatzen naiz –eta tesia ere hortik doa– egia eta jakituria kontzeptuak babestearen alde, iruditzen zaizkit bi kon-



tzeptu oso inportante eta ez ditut zaboretara bota nahi, baina betiere kontuan izanda hori, kokatuak direla.

**Zure zutabeetan hiruzpalau gai errepikatzen dira etengabe. Zaintzaren bueltakoa da horietako bat.**

Feminismotik gehien zeharkatu nauen gaietako bat da. 16 urterekin deskubritu nuen maitasun erromantikoaren afera edo kosifikazioa. Gerora, nire kasuan, genero arrakala gehien markatu duena zaintzaren lan-kargari lotzen zaiona da, zein mobida den eta zein klase botere dagoen zaintza lanen kargu egiten denaren eta egiten ez denaren artean. Zaintza lanak tokatu zaizkit amonarekin, lagunekin... Gertutasuna eman dit horrek eta *joder*, lezio handia izan da pertsona zaurgarriengandik hain gertu egotea.

Nire errealitatearen parte ere izan dira *señoren* lezioak: amona, ama, izeba... Izebarekin egon naiz oraintxe oporretan eta lezio transfeminista piloa eman dit. Ezkongabea da, 65 urte ditu eta nahi duena egiten du. Ama ez izateak ekarri dio familiako beste guztiez kargu egin behar izatea, baina bizi da heteroarautik kanpo edo horrekiko erresistentzian neurri ba-

tean. Esaten zidan: “Nik orain zertarako behar dut gizon bat, zaintzeko?”.

**“Nik nahi dut zaindu zaintza existitzen ez den mundu batean”, esaten zenuen.**

Lore Lujanbiok oso ondo esplikatzen du bere tesian, zaintzaren kontzeptua dagoeneko pixka bat amorfo bihurtu dela, gauza asko izendatzeko erabili izan delako. Badaude zaintza jarduerak –norbaiti gorputza esponjaz garbitzea, jatekoa egitea–, hau da, lan erreproduktibo deitzen zaion hori guztia; baina gero zaintza bera ere bada menpeko toki batetik egiten den lana eta klase harreman bat markatzen duena (emakumeen eta gizonen artekoa).

Gustatuko litzaidake, iraultza transfeminista aurrera eramatea lortzen badugu, klase horiek existitzen ez diren mundu batean zaintzea. Zaintza lanak izango dira, baina ideala izango litzateke menpekotasun hori ezabatutako mundu batean egitea.

**Lagunak ere asko ageri dira zure idatzietan. Askotan, amesten duzun familia ereduari lotuta.**

Hori bada kritika bat esaten duena feministok kaka gehiegi eman dugula la-

guntasunaren kontzeptuarekin eta akaso esperantza gehiegi jarri dugula laguntasunaren ideia. Laguntasunaren B aldeak erakusten dituzten beste hainbat errealitate ere badaude, Cris Lizarragaren *Best Friends 4Ever* fanzinea, esaterako.

Nik asko goraipatu izan dut laguntasuna, baina uste dut baduela zentzua. Harreman afektiboen zentroan bikotekidea eta horri lotuta familia dugun mundu batean hori deszentralizatzea beste mundu batekin amesteko erronka pertsonal eta politikoa iruditzen zait.

Pertsonalki ere ikusi dut bikotean eta familian zentratzeak ekartzen dituen ajeak. Jende asko zorigaitzeko bizi da eta hori errealitate bat da. Laguntasuna iruditzen zait sekulako potentzialitatea daukan harreman mota. Akaso horizontalagoa delako, akaso oraindik ez ditugulako bulkatu horrenbeste bertan maitasun erromantikoari edo familiari lotzen zaizkion espektatibak...

Nahiko nuke lagunekin bizi etorkizunean. Beldurrak dira: posible izango da? Nahiko dute lagunek nirekin bizi? Joango gara Maialen, Lide eta hirurok eta lortuko dugu hipoteka bat? Ez dakit. Oraintxe bertan nire bizitzaren zentro handia okupatzen du laguntasunak.

**Zer datorkizu burura “espazio publiko” esaten badizut?**

Niretzat espazio publikoa –eta hau nire lagun antropologo sozial eta psikologo sozialei lapurtzen diet– kontzeptu arauemailea da, balio duena kaleak nola izan beharko lukeen proiektatzeko. Arkitekturetik beretik hasita, kalean egoteko baimentzen diren modu eta gorputzetaraino.

Erabiltzen da askotan proiektu urbanistikoak modu desiragarri batean saltzeko. Eta bueno, *guapo* dago, ez dakit, gustatzen zait bidegorriak egotea edo etorbideak edo bulebarra. Baina, aldi berean, horrek ordena jakin bat ezkututzen du, hegemonikoa, klase jakin bati desiragarri egingo zaiona. Eta batzuentzat desiragarria bada, oztopatzailea ere bada beste batzuentzat: izan gurpildun aulkian zozaelako edo kalea delako zure lan espazioa.

Irati Majuelok kristoren lana egin du espazio publikoaren eta literaturaren arteko harremanari loturiko tesian, paseatzailearen figurari lotua pixka bat.

**Zein leku du hor Poliziak?**

Espazio publikoaren beste inperatiboetako bat da gatazka ezabatzea, hiritarrak zorientsu bihurtzea. Baina klase harremanak ezin dituzu ezabatu kalea polit

jarriz: Gabonetako argi batzuekin edo fatxada itsusiak homogeneizatuz. Kontua da, orduan behar dituzula kontrol mekanismoak botere-harreman eta gatazka horiek leuntzeko. Seguratsunaren izenean botere harreman asko estaltzen dira: prekarietatea, klase-gatazkak, arrazakeria... Hor Poliziak badu funtzio bat *hiritarren ongizatearen izenean*, eta da gatazka modu errepresiboan kudeatzea, hain zuzen ere. Hori azaleratzen kristoren lana egiten du Txago kolektiboak. Urteak daramatza seguratsunaren diskurtsoaren eta Poliziaren presentzia normalizatu eta naturalizatuaren aurrean kristoren lana egiten. Ohitu gara kalean patruilak eta indarkeria poliziala ikustera.

Txagok indarkeria polizial bizipenak erregistratzeko lana egiten du Donostian eta urtero *Karrikaratu* izena duen txostena argitaratzen du. Txostenak Donostiaren argazki bat erakusten du, hiri eta helmuga turistiko idealaren aurrean kontraste izugarria egiten duena eta hiriaren inguruko informazio asko ematen duena.

#### **Bizitzan oso presente duzun beste mundu bat da literaturarena.**

Beti egon naiz literaturarekin kontaktuan. Fantasiatzko mundua izan da txikitatik eta heldutan kode ere bihurtu da. Zutabeetan, adibidez, balio izan dit zailak diren gauza batzuk esateko. Annie Ernauxek ez zuen hitz egiten zaintzaz zuzenean, baina nik ikusten nituen bere istorioak zaintza lanez eta maitasun erromantikoz gainezka, eta horiek dakarten aje eta psikosi guztia. Zaintzaren ajeak askoz errazago heldu naiz ulertzera Annie Ernauxen liburu ba-



tekin, ni neu zerrendatzen hasiko banintz baino.

Edo Manolito Gafotasek esaten duenean “nire aitona esaten du Carabancheleko lurzorua nazkagarria dela, baina zerua, berriz, munduan den politena”. Irudi literario bat da, baina espazio publikoaz hitz egin dugun guztia hor laburtzen da.

Beste adibide bat heteroarua eta familia nuklearrari lotua Sara Mesaren *La familia* da. Mesak ez ditu panfleto bat egiten hori esplikatzeke, baina sortzen du istorio bat, atmosfera bat, irudi batzuk... non ikusten duzun familia nuklearraren B aldea eta familia zorionsua edo haren irudia bermatzeko saiakerak dakarrena.

**Literaturarekin duzun harremana irakurle gisakoa da, ala idatzi ere egiten duzu?**

Irakurle izan naiz nire bizitzaren gehiengoan. Idatzi ere asko idatzi dut, baina pixka bat gainezka egiten dit batzuetan hainbeste filosofia idatzi behar izan ondok beste ezer idazten jaritzeak. Azken urteetan saretxo bat sortu dut inguruan, hiru lagun gelditzen gara astean behin gure kontuak idatzi eta ariketak egiteko. Eta bai, etorkizun batean gustatuko litzaidake pentsatzea: “Ostras, zer pasako litzateke Iratik orain literatura egingo balu?”. Laster ipuintxo bat aterako da Booktegiaren, hori oraingoz nire aletxo.

#### **Zein da zeure buruari egin diozun azken promesa?**

Azkenekoa izan da lagunekin bizitzeko apustua. Duela ez hainbeste adierazi dut hitzez gertuko lagun batzuekin, “saiautuko gara” esan diogu elkarri. Ez dakigu noiz eta nola, baina saiautuko gara bizia elkarrekin eraikitzen. Betetzen baldin badut agian hori da nire bizitza markatuko duen promesa handienetako bat. ●

**“  
Klase harremanak ezin  
dituzu ezabatu kalea polit  
jarriz: Gabonetako argiekin  
edo fatxada itsusiak  
homogeneizatuz”**

**Zereal, lekale eta  
bazka ekologikoak.**  
Salmenta zuzena

info@hazialdeko.eus  
621 229 415

**HAZIALDEKO**  
Nafarroako Ekologikoa Produccion  
Ekologikoa Navarra





# Iritziak

## Desberdintasunen garrantzia nazioarteko politikan



ASIER BLAS MENDOZA  
EHU-KO IRAKASLEA

**T**rumpen muga-zergeren dantza da azken hilabeteetako berri nagusietako bat. Gerra komertziala eta ekonomikoa hedabideen eta analisten ahotan daude oraindik ere. Gehiengutik, baina, herritarrei gauzak era oso sinplean azaltzen zaizkie, gutxi-asko esanez Etxe Zurian ero bat dagoela horrelako erabakiak hartzen. Azalpenak sofistikatuagoak direnatan, nazioarteko politikan dagoen kontraesan nagusia mahai gaineratzen da: AEBen eta Txinaren arteko lehia. Halere, neoliberalismoaren ideologia gailendu den Mendebaldeko gizarteetan nagusitu den azalpena da gerra ekonomikoa txarra dela mundu guztiarentzat (egia izan litekeena). Adibide gisa aipatzen da AEBetako erabakiek Txinako ekonomia kaltetzen badute, horrek AEBetako ekonomia ere ahulduko lukeela, bi herrialdeen interkonexio mailagatik. Beste behin ondorioa da Trumpen erabakia irrazionala dela.

Kontua da, salbuespenak salbuespen, mota guztietako gerretan bando guztiek galerak dituztela, baina, halere, gerrak egon badaude, izan muga-zergekin edo tankeekin, gerren helburua boterea delako. Ekonomian eta nazioarteko politikan desberdintasunak eta estatusa oso garrantzitsuak dira boterea ulertzeko, nahiz eta badirudien azken hamarkadetako hegemonia neoliberalak kontzeptu horiek eztabaida guneetatik atera

Trumpek Txina kaltetu nahi du bere garapen ekonomikoa oztopatu eta AEBetako botere estatusa gordetzeko. Ikusteko dago Trumpen estrategiak funtzionatuko ote duen

dituela. Liberalek azpimarratzen dute ekonomia ez dela zero baturako jokoa, horregatik, bi pertsona aldi berean aberastea posible dela diote. Logika horren txanponaren beste aldea da pertsona bat kaltetzeak beste pertsona bat kaltetzea ere ekar dezakeela. Bestela esanda, pertsonen (eta herrialdeen) etorkizuna gatazkatsua izan baino, lotuta dago, pobreen egoera hobetzeko aberatsen egoera hobetu behar omen da.

Errealitatea, ordea, ez da hain sinplea. Dena ez da kuantitatiboa. Demagun bi pertsona aberasten doazela bien arteko lankidetzarekin, hasieran A pertsonak 100 euro zituen eta B pertsonak 10. Urte batzuk geroago, biek hobetu dute eta Ak 900 euro ditu eta Bk 850. Ak, baina, argi ikusten du bere hobekuntza Brena baino txikiagoa dela eta, gauzek horrela jarrai-

tzen badute, etorkizunean aurre hartuko diola, eta bien arteko estatusean aldaketa handi bat gertatuko dela; baina errealtatean aldaketa emana dago.

Lehen, Ak Bk baino hamar aldiz diru gehiago zuen, ondorioz, Ak botere handia zuen Bren gainean; azken horren behar ekonomikoagatik, Ari laneskua eta botoa oso merke saltzen zizkion. Baina, orain, diru gehiago duenez, ez du botoa saltzen eta laneskuaren prezioak gora egin du: Ak Brengan zuen botere zati oso handi bat galdu du. Baina ez da hori bakarrik, lehen A uharte batera joaten zen oporretan eta bertako guztiak bere esanetara zeuden, orain, ordea, B ere bertara doa, ondorioz, prezioek gora egin dute eta bertako populazio guztia ez dago Aren esanetara.

Desberdintasun ekonomikoek boterea sortzen dute, zenbat eta desberdintasun ekonomiko handiagoa, orduan eta botere handiagoa izango du aberatsak pobrearekiko. Nazioarteko politikan gauza bera da, Trumpek Txinarekin duen gerra ekonomikoak AEBetako ekonomia kaltetu dezake, baina zenbakietatik haratago, Trumpek Txina kaltetu nahi du bere garapen ekonomikoa oztopatu eta AEBetako botere estatusa gordetzeko. Ikusteko dago Trumpen estrategiak funtzionatuko ote duen, egiazki ez dut uste, baina edozein kasutan, *Business as usual* egiten jarraitzen badute, Txina indartuz jarraituko du eta Washingtonen botere galera azkartuko da. ●

# Nire garuna ote naiz? (eta II)



TERE MALDONADO  
FILOSOFIA IRAKASLEA

**E**z dut ikusi nahi gorputza arimaren kartzela gisa. Baina ezin dut saihestu gorputz atletikoak, gazteak, osasuntsuak, ulertzea luxuzko ibilgailuak balira bezala, jabeen eramaile arinak. Gazte (osasuntsu, atletiko) ez garenon gorputzek ere bere jabeok eramaten gaituzte, baina kasu honetan kotxe zaharrek dira, batzuetan ez dabilta, erregaia azkar agortzen dute, aldapa goretan trabatu egiten dira, jabeak botata utzita. Jabea diot, arima (*psike*) ez esateko. Batzuetan autoak gurpil bat galdu du eta arrastaka doa; besteetan, ez du lortzen ezta abian jartzea ere, edo metro gutxira gelditzen da. Irudikapen horretan ibilgailua ez da gidaria, baina gidaria ezin da ibilgailutik atera. Mantentze-lanak egoki eginda (oinarri ona izanda) autoak kilometro asko egin ditzake. Baina, ez bagara lehenago hiltzen, iritsiko da momentu bat non, gorputza –ez gizena bakarrik– astunegi bihurtzen dela. Dena malda gora bilakatzen da, denak ahalegin handia eskatzen du. Imajina dezakegu zer bihurtzen den bizitza, pilotua bera denean txotxatzen hasten dena eta, Rafael Berriok abesten zuen legez, aurpegiak eta izenak lausotzen hasten direnean.

Ikusten duzuenetz, berriro ere gorputzak eta euren jabeak, autoak eta euren gidariak... Baina gorputzen jabeak bagara (“nire gorputza nirea da”) orduan ni ez naiz nire gorputza edo, Markus Gabriel filosofoak dioenez, *ni ez naiz nire garu-*

*na* (garuna gorputzaren zati bat baino ez da). Nahita, ez dut esan “gure” gorputza; “garuna gure gorputzaren zati bat baino ez da” esango banu, sast, dualismoa berriro! “Gure” hitzak berak suposatzen du gauza norbaitena dela, kasuan kasuko gorputza ez dena. Hasieratik bertatik ohartarazi nizuen hau nahaspila zela.

Lege fisikoen pean egonik ere (ezin dugu ekidin grabitatearen legea) materia hutsa ez garelako usteak ahalbide du aukeramen daukagula suposatzea, eta meritua, errua edo erantzukizuna bezalako kontuak ekarri ditu. Lege fisikoak ez lirateke izango, gure kasuan, azken hitza. Bada, *ni ez naiz nire garuna* bezalako planteamenduen aurka, Robert M. Sapolsky zientzialariak duela urte pare bat *Determinatua: aukeramen askerik gabeko bizitzaren zientzia* izeneko liburua argitaratu eman zuen. Ez pentsa bi gremioen arteko eztabaida denik, alde batetik filosofoena, bestetik zientzialariena. Sapolskyren ideiak onesten eta ospatzen dituzten filosofoak dauden bezala, badira horiek ukatzen dituzten zientzialariak ere. Sapolskyk berea ar-

gitaratu zueneko aldi berean, Kevin J. Mitchell genetika irakasleak *Agente askeak: nola eboluzioak borondate librean eman zigan* liburua atera zuen.

Oker ez banago, salmenta ikuspuntutik Sapolsky arrakastatsuagoa izaten ari da. Argitaletxeak honela aurkezten du: gure gorputzari zer egin behar duen esaten dion *ni* bereizi bat existitzen delako fantasia atseginari aurre egiten dio bikainki, kontzientziaren funtzionamenduen sintesi bikaina da. Gurean, Juan Ignacio Pérez Jaurilaritzako sailburu eta zientzialariak, erreseina luzea (eta gomendagarria) eskaini zion bere blogean. Nik, dualista izan nahi ez dudanak, pozitu egin beharko nuke Sapolskyren arrakastarekin, baina ezin dut burutik kendu galdera: nor pozitu behar da, nire garuna ala ni neu? Norentzat da atsegina *ni* bereizi bat (autoko gidari bat) existitzen delako fantasia, garunarentzat ala niretzat? Norentzat da kontsolagarria *ni*aren fikzioa? Pozik ala triste egoteko gaitasuna daukate garunek? Edo gu gara pozten edo tristatzen garenok? Batek daki. (Nork ote daki?). ●



DOM CAMPISTRON

# Parte izan, parte hartu eta parte eman



**IÑAKI BARCENA**  
EKOPOL ETA  
EKOLOGISTAK  
MARTXANEKO KIDEA

**E**z dira gauza bera. Sistema demokratiko bat, edozein eskalan, parte-hartzailea ez bada ez da demokratikoa. *Demos* batek ez badu lehentasunik erabakiak hartzerakoan, demokrazia eredu hori hutsala da. Israelgo Estatuan hauteskundeak egiten dira, baina ariketa politiko horrek ez dio legitimazio demokratikorik ematen nazioartean. Legitimazioa diot, herriengandik jasotzen den onespena, ez estatuburuek ematen duten oniritzia.

XXI. mendea ez da hasi Gorbatxov eta Reagan-en garaian euromisilen krisia eta gero iragarri zen moduan, bakerako norabidean, alegia. Aldiz, politikoki eta ideologikoki mundua bitan banatzetik, “inperioen” arora pasatu gara globalizazio kapitalistaren bultzadaz, eta 40 urte pasa eta gero globalizazio ekonomiko, kultural, politiko eta komunikatibo horren eztanda ezagutzen ari gara modu krudelean. Zer egin mundua demokratizatzeke?

Duela 30 urte demokrazia parte-hartzailea proposatu zen gure arazo politikoak bideratzeko. Eta zenbait esperientzia interesgarri izan eta gero (hasierako aurrekontu parte-hartzaileak, kasu) biraketa neoliberala sumatzen da prozesu parte-hartzaileetan (Jone Martinez Palacios, EHU, 2021). Ikerlari feministaren ustez, diagnostikoan hiru osagarri nagusi agertzen dira: demokraziaren krisiaren na-

turalizazio mekanizista, partaidetzaren burokratizazio neoliberal eta partaidetzaren merkantilizazio pribatiboa.

Ados gaude. Horregatik diogu ez dela bera, parte izatea (erabakiak hartzeko kolektibo baten partaide “legal-ofizial” izatea), parte hartzea (erabaki politikoak hartzeko konfrontazioan egotea) edota parte ematea (instituzio politikoetatik parte hartzeko gonbita egitea).

Politika gatazka da. Gatazka, talde sozial eta politikoen arteko harreman desorekatuetan, boterearen bila. Parte hartzea tresna bat izan daiteke harreman horiek ezabatzeko edo arintzeko. Horregatik, parte hartzearen zentzua modu sistematiko eta jarraituan presente egotea da, egitura asimetriko eta sozio-politikoki gatazkatsuetan. Eragile eta sektore sozialen ideiak, balioak edo interes kontrajarriak islatzen.

Parte hartzeaz hitz egitea da (edo izan beharko luke) botere erabileraz berba egitea. Boterea birbanatzeaz eta gizarte-sektore desberdinetara iristiaz. Desjabetuak, kaltetuak edo baztertuak direnak birjabetzeko erabiltzea.

Horregatik, parte hartze demokratizatzailea informazioa banatzea, kontsultatzea edo aholkatzea baino gehiago da. Botere-erlazio asimetrikoak identifikatzea eta berdinen arteko harremanetan eraldatzea da. ●

## Bizipenak



**LEIRE NARBAIZA**  
IRAKASLEA

**B**izipen multzoa da gure historia. Esperientziek osatutako atal eta kapituluak. Errutina eta egunerokoa zipriztintzen dituzten gertaerak. Baina adin batera iritsita, bizi izan-dako momentu batzuk atzenduta geratzen dira, buruaren zokoren batean ostenduta. Ez ahaztuak, abandonatu-txo, agian.

Edozerk, oster, berpitz lezake gertakizuna, urteen geruzek ondotxo estali badute ere. Metxa izan liteke prentsako erreportaje bat, norbaitek kontatutako zeozer, edo alirizira egindako txangoa.

Orduan, oroimeneko arkeologoa lanean hasten da jo eta su. Magikoki, gertakizun hura ganbarako kutxatik irten, eta akordura etortzen da, distiratsu. Zerk zokoratu zuen asmatu ezinda, berreskuratzen dugu, miretsita burmuinaren barrenean gorde genuelako gura barik.

Jazoera hura ez eze, inguratzen zuen guztia esnatzen du: usainak, kantak, pasadizoak, sentimenduak...

Orainak, baina, desitxuratu lezake guztia. Errepide bat eraiki dutelako, eta para-jea suntsitu, esaterako. Errealitateak gure bizipenak marguldu ditu. ●

# Zenbat arantza Arantzak



NEKANE TXAPARTEGI  
KAZETARI FEMINISTA

**A**rantzaren buruko loreek ez zuten arantzarik, Arantzaren bizitzak, ordea, asko. Emakume izatearekin batera, jaiotzetik batzuk. Besteak gaztetatik eransten joan zitzaizkion, komisarian torturak ezarriak, Burgosko prozesuan eta kartzelan, arantza horiek denak patriarkatuak areagotuak. Ene kezka edo gogoeta da ea besteren bat hil ondoren ahanzturan geldituko den. Euskal Herriko gatazka Madriletik konstatzen eta zinematatan saritzen ari diren garai honetan, ez ahazteak kirol ariketa dirudi, nekagarria. Gogoratzeak, berriz, erresistentzia.

Beren ibilbideen konparaketetan hasi gabe, Pepe, Juan Mari... batzuk aipatzearren, medioetan gizonek askoz ere presentzia zabalagoa izaten jarraitzen dutelakoan nago. Ez hori bakarrik, ze orrialdetan argitaratzen diren edo berriari ematen zaion lehentasuna ez dira parekideak. Ondorioz, oihartzun sozial eta politikoaren erdigune bihurtzen dira. Irakurle, entzule, sarezaileen erreakzioak ere maila berean, zer ikusi, hura zabaldu edo komentatu.

Zer egin Arantza, Teresa eta besteak ahanzturara ez eramateko? (...) Gure alabek jakin dezaten nondik gatozen eta zuen semeek beraien izenak irakur ditzaten

Gazteek, belaunaldi berriek, ez omen dute irakurtzen. Beste era batetara informatzen edo desinformatzen omen dira, eta ni pentsatzen, gu zertan ari garen. Kazetari feminista bezala baditut bi arantza nik ere. Batetik, ezkerreko egunkari, medio edo sareetan pausoak eman badira ere, oraindik emakume eta genero disidenteei agentzia politiko bezala eskaintzen zaigun lekua gutxi da, eta kultura patriarkalaren ahanztura erreproduzitzen jarraitzen da. Inklusioaren aroan mas-

kulino generikoa erabiltzen den hizkuntzan, medioek gu izendatu gabe jarraitzen dute: *presos*, *represaliados*, *deportados*... Bestetik, non gauden mugimendu feministok, eredu eta narratiba berriak medioetan txertatzeko eta irakurriko ez diren horien hutsuneak betetzeko.

Kideren baten sare sozialen estatusan, "Arantza, handia zara", beste batean, argazkia. Kasualitatea, biak emakumeak izatea? Zer egin Arantza, Teresa eta besteak ahanzturara ez eramateko? Sare sozialetako kodeak apurtuz (berehalakoan *posteatzea*, alegia) ene sareetan zabaldu dut Arantzaren argazkia. Euskal gatazka eta memoria feministaren transmisioan *influencer* deiturikoa bilakatu nahian. Jakinik ez ditudala *like* asko lortuko, nirean jarraitu dut gogoratzen eta horretarako denbora hartzen, lerro hauek idazten. Aleka baino, kolektiboki ekiten eta eragiten jarraitzeko asmoz. Bagoaz aurrera, baina asko dugu egiteke. Gure alabek ahaztu ez ditzaten, jakin dezaten nondik gatozen eta zuen semeek beraien izenak irakur ditzaten. Izena duenak baitu izana. ●

esta baida

Iñaki Iurrebaso / Garikoitz Goikoetxea

## ESNATU ALA HIL

EUSKARAREN ORAINA ETA GEROA, DIAGNOSTIKO BATEN ARGITAN

elkar elkarargitaletxea.eus

# Lagundu euskal kazetaritza independentea ikastetxe guztietara eramaten!

Eskatu zure hezkuntza  
zentroko arduradunei **ARGIAko**  
**harpidetza egiteko**





Tocoako (Honduras) Lempira komunitatean dagoen meategia eta handik ateratako minerala prozesatzeko pellet fabrika.

# Erdialdeko Amerikako zain irekiak

Trantsizio energetikoa mahai gainean dago, sarri dira albiste bateko eguzki panelak eta besteko eolikoak. "Ekonomia geldialdian eta politika krisi sakonean" dagoen garaian, sistema norantz aldatu erabakitzen ari da, aldaketa egon, egongo baita: hori dio Gonzalo Fernández OMAL Bakea eta Duintasuna elkarreko behatokiko ikertzaileak. Hori

guztia, Euskal Herrian, baina ez Euskal Herrian soilik. "Euskal gizarteak jakin behar du gaur egun trantsizio ekosozialaren inguruan mahai gainean ditugun eztabaida guztiak zuzenean daudela lotuta beste lurralde batzuetara", dio Fernandezek. Zehazki, besteren artean, ozeanoaren beste aldera, Erdialdeko Amerikako meatzeetara.

Lur azpi horretako zainak, harri arteko mineral metaketak, altxor bilakatu dira, eta berarekin ekarri dituzte heriotza eta bortizkeria; narrikotrafikoa eta ustelkeria. Errealitate hori kontatzeko, Ozeano Atlantikoa gurutzatu du ARGIAk, aipatu elkarrearen eta ACAFREMIN Erdialdeko Amerikako meatzaritza metalikoaren aurkako elkarrearen eskutik.

 MARIA ORTEGA ZUBIATE  RENÉ PAREDES/ACAFREMIN





José Chic VOS alderdiko diputatua, Cerro Blanco meategiak ustiatutakoaren erregistroa eskuan.

**U**ztailak 8ko goiza. Guatemalako Hiria. Guatemalako Parlamentuko bulegoetan dago José Chic VOS alderdi aurrerakoiko diputatua, eta parean ditu Meatzeen Ministerio-ko, Ingurugiroko Ministerio-ko, Giza Eskubideen aldeko Prokuradoretzako eta Kontuen Prokuradoretzako ordezkariak. Kontuak eskatzen ari zaizkie, “irregulartasunak” leporatzen dizkie beraiek baimendutako meatze baten inguruan. Diputatua aurpegiatu die meategi horrek “aspaldi” beharko lukeela itxita, Guatemalako legeak zehazten baitu bi urte baino gehiago geldirik dagoen meategia itxi behar dutela: “Hemen legez kontrako jarduerak egin dira, argi”. Lizentziaren datuak eskatzen dizkie, meatzea ustiatzen ari den enpresaren izena, baina erantzun kontrajarriak eta zalantza asko baino ez du jaso bueltan. Chicek argi du: “Guatemalako meatzaritza enpresen lizentzien gehiengoak, denak ez esateagatik, ustelkeriaren ondorio da”.

Adierazpenek ez dute harritu Pedro Cabezas ACAFREMINeko koordinatzailea. Ondo ezagutzen du Chicek salatu

duen kasua, Cerro Blancoko meatzea, Jutiapako departamentuan, Guatemala hegoaldean. Ondo ezagutzen du sobera aztertu duelako, baina baita eskualde osoan, Erdialdeko Amerikako iparraldean, etengabe errepikatzen den fenomeno delako ere. Eta horren oinarria argia da, Fernándezek aipatutako mundu mailako loturekin zerikusia duela dio: “Erdialdeko Amerika, Latinoamerikako beste zenbait eskualde bezala, beti izan da merkatu globalek sakrifikatu duten lurraldea. Eta mundu mailan energia trantsizioa garatzen doan heinean, zorritzarrez, guk iturri papera bete behar dugu”. Patroi horrek zuzenean eragiten die tokian tokiko gobernuei: “Paper hori betetzeko gobernu ustelak behar ditugu: kooptatuta daudenak, korporazio multinazionalen aliantza funtzionatzen dutenak, edota eskualdean botere hegemonikoa duten [Mendebaldeko] herrialdeekin aliantza funtzionatzen dutenak”, dio Cabezasek.

Testuinguru horretan, beraz, Cerro Blanco adibide bat baino ez da, eta Guatemala kokaleku bat, ez besterik. Errepor-  
taje honetan agertzen diren kasu de-

nak dira errealitate eta modelo beraren erakusgarri: modelo “estraktibistarena”. Eta mota askotako proiektu estraktibistak badaude ere, meatzaritzari lotuak “kaltegarrienak” direla dio Fernándezek: “Ingurugiroari eta ingurune ekosozialari kalte handiak eragiten dizkiete, oinarri demokratikoak desagerrarazten dituzte, eta aliantzak egiten dituzte botere faktikoekin: legezkoak eta legez kanpokoak. Zeren, bai, Erdialdeko Amerikako kasutan ikusi dugu krimen antolatuarekin aliantzak daudela”. Eredu hori eskualdean egonkortzen ari dela dio Cabezasek, “lurraldearen metaketa, biztanleen indarrezko lekualdaketa eta desberdintasunak” sortzen dituela, eta horrekin, gatazkak. Eta heriotzak.

### JUAN LÓPEZEN HILKETA

2024ko irailaren 14a zen Juan López lurraren defentsako aktibista hondurastarra hil zutenean. Orain urtebete. Hondurasko Tocoa udalerrikoa zen López, Karibe itsasotik hurbil, eta bertako Botaderos Carlos Escaleras Parke Nazionalan eraikita dauden bi proiekturen aurka ari zen borrokan: aire libreko meatzea eta ateratako mineralak prozesatzeko pellet enpresa; eta bi horiek elikatze enpresa elektrikoa. Azpimarratu behar da meatzaritza enpresa hori bere sorreratik egon dela narkotrafikoari lotuta, Cabezasek azaldu duen bezala: “Narkotrafikoak sortu zuen proiektua, gero familia batek lortu zuen bere jabetza, hura ere narkotrafikoari lotua. Ez dakigu proiektu hori dirua garbitzeko erabiltzen duten edota meatzaritza eta energia ustiaketa diru iturri formal gisa erabiltzen duten; edonola ere, bi prozesuek bat egiten dute”.

Hilda agertu baino egun batzuk lehenago, Lópezek Tocoako alkatearen dimisioa eskatu zuen, hain zuzen ere narkotrafikoarekin harreman zuzenak zituela leporatuta. Ordutik urtebetera, ez da epaiketarik abiatu. Lópezekin, berrehundik gora dira lurraren defentsan bizia galdu dutenak Hondurasen –hain justu, Lópezek defendatu zuen parke naturalak Carlos Escaleras izena bizia galdu zuen ingurugiroaren beste defendatzaile bati zor dio–. Izan ere, Erdialdeko Amerikako gobernuak goitik behera ardazten dituen laugarren faktorea, eta indartsuena ziurrenik, narkotrafikoa da; Cabezasek dioenez: “Narkotrafikoak ilunpetan egiten du lan, bortizkeria osoz, eta estatuko zenbait erakunderen jabe da”. Horrek asko zailtzen du feno-



Gonzalo Fernández OMALEko ikertzailea (ezkerrean) eta Pedro Cabezas ACAFREMINeko koordinatzailea (eskuinean).

menoaren ulerkera, eta bere aurka egite hutsa: “Komunitateek pairatzen dituzten kalteak, askotan, botere egitura horietatik datoz, eta guk ez ditugu ulertu ere egiten, oso konplexuak direlako. Juan Lópezen kasuan, badakigu botere formala dagoela atzean, baina jakina da narkotrafikoa ere lotuta dagoela. Orduan, noren aurka ari zara? Gobernuaren ala narkotrafikoaren aurka?”.

Lópezek denbora zerman lurraren defentsan eta ustelkeriaren aurka borrokan: 2023ko urritik babes neurriak zituen, Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrak horrela aginduta. Baina ez zen nahikoa izan. Gonzalo Fernández OMALEko ikertzaileak dio babesgabetasun hori sistemen parte dela: “Protesta oso kriminalizatu dute. Lege sistemak hori onartzen du, defendatzaileak babesteko dauden baliabide apurrak oso pobreak dira eta ez daukate inolako bideragarritasunik”.

Guatemalan ere antzerako kasuak gertatu izan dira. ARGIAko irakurleak dagoeneko ezagutzen du Izabalgo departamentuko El Estor herrian dagoen meategia –kasua salatu zuen kazetari

bati egindako elkarriketetatik 15.000 euroko kalte ordainak eskatu zizkion Solway enpresak ARGIAri-. Meatze horren bueltan ere bortizkeria izan dela salatu du Chic diputatuak: “El Estorren hilketak izan dira. Aurreko legegintzaldian hamar setio egoera ezarri zituen gobernuak: konstituzio eskubideak, giza eskubideak eta batze eta mugimendu eskubideak murriztu zituen”.

Hondurasen jakin badakite botere publikoak zerikusia izan zuela Juan Lópezen heriotzan, baina ezin dute frogatu; Guatemalako kasuan, aldiz, gobernuak indar polizialak eurak izan direla frogatuta dago, Chicek azaldu duenez: “Hilketak horiek indar polizialek burutu dituzte, baina beti geratu dira epaiketarik gabe”. Izan ere, diputatuaren hitzetan, Poliziak meatzaritza enpresen segurtasun guardia gisa egiten du lan: “Polizia Nazional Zibileko agenteak mobilizatzeke, kasu batzuetan, enpresa pribatuek ordaindu egiten dute, eta hori dokumentatuta dago. El Estorren meatzaritza enpresak segurtasun armada publiko bat zuen bere zerbitzura”.

Defendatzaileen aurkako indarke-riaren kasu bortitzenak dira aipatutakoak, baina bestelako kriminalizazioa oso zabaldua dagoela salatu dute maiz. “Zigor zuzenbidearen erabilera desegokia” dagoela dio Chicek: lurraren defentsan daudenei “delitu larriak” egozten dizkiete, baldintzapeko askatasuna edo espetxeratzea ez den bestelako neurririk hartzea eragozten duena: “Legez kanpoko atxilotetak dira, bahiketak”.

## ORO EZ DA URRE

Komunitateek diote meatzaritza enpresak kontakizun berarekin heltzen direla eurengana: aberastasuna eta lanpostuak hitzematen dizkiete, komunitateko zenbait kide kontratatzen dituzte. Eta horrek arrakala sortzen du enpresaren alde jartzen direnen eta lurren defentsan diharduten komunitate bereko kideen artean. “Komunitateen banaketa sistematikoa da”, dio Fernándezek. Komunitateen ehun soziala gezur batean oinarrituta apurtzen da, Cabezasek azaldu duenaren arabera: “Ikerketa batean ondorioztatu dugu Nikaraguan, Hondurasen eta Guatemalan meatzaritza interesa duten lurak herrialdearen %40 eta %50 artean daudela, El Salvadorren %30 inguru. Baina enpresa horiek lanpostuen %1 baino gutxiago sortzen dituzte, ez dakarte ezer”.

Cerro Blancoko meategiak  
2007an lortu zuen  
lizentzia. Bi hamarkadatan  
Guatemalako Estatuari zerga  
bidez egindako ekarpena:  
995 euro

Lanpostuen aldetik soilik ez, herrialdeari ekonomikoki egiten dioten ekarpena ere hutsala dela dio Cabezasek. Eta horren adibide da Guatemalako Cerro Blanco meatzea. GoldCorp enpresa kanadarrak 2007an lortu zuen lizen-

tzia, eta hamabi urtez aritu zen bertan. Denbora horretan, ordea, ez zuen ezer ustiatu, Jose Chic diputatuak dioenaren arabera: “Ez zuten atera ez urre ez zilar ontza bakarra ere; ez zuten ezer atera”. Enpresaren txostenetan, zenbait urtetan bi tona mineral ustiatu dituela ageri da; beste batzuetan ez dago ustiatutakoaren daturik. Guatemalako Estatuari zerga bidez egindako ekarpena, hoguei urtean, honakoa: 8.900 quetzal, 995 euro.

Juan López hil eta urtebetera, ez da prozesu judizialik ireki. Beraren hilketarekin, berrehundik gora lurraren defendatzaile hil dituzte Hondurasen

Orain, Cerro Blancoko meatzea ireki eta ia bi hamarkadatar, hura ixteko presioa egiten ari dira lurraren defentsako kideak eta zenbait alderdi politiko, Guatemalako Estatuako legedia betetzen ez duelako; tartean Chic diputatuaren VOS alderdia. Guatemalako legeak dio bi urtez baino gehiagoz geldirik dagoen meatzea itxi behar dela: epe hori aspaldi pasatua du meatzeak. Kontua da Guatemalan ez dagoela zehaztuta zelan egin itxiera prozedura: ez dago zehaztuta enpresak ala estatuak ordaindu behar dituen gastuak.

Hori horrela, Chic beldur da enpresak Guatemalako Estatuak ez ote duen nazioarteko arbitraje epaitegi batera eramango meategia ixteagatik, estatua epaiketara eramatea negozio “errentagarri” bilakatzen ari dela baitio: “Batzuetan negozioa ez da mineralen ustiaketa, herrialdea arbitraje epaiketa batera eramatea baino. Errentagarria da: enpresek ez dute inbertsiorik egin behar, funtzionario usteleki ordaintzen diete lizentziak eman diezazkieten, eta

itxiazten dietenean, arbitrajea eskatzeko dute”. Esperientziatik hitz egiten du, herrialdean izan baitira horrelako kasuak: aurtengo apirilean Guatemalako Estatuak arbitrajea galdu du Energía y Renovación Holding enpresa hidroelektrikoaren aurka, eta 64,5 milioi dolar ordaindu beharko dizkio. “Azkenean, proiektua joan denean, kalte guztiak estatutak, herrialdeak eta komunitateek pairatzen dituzte”, dio Chicek.

### BIZITZAREN AURKA

Kalteak ez dira, ordea, bakarrik ekonomikoak. Ondorio ekologikoez ohartarazi dute Fernandezek eta Cabezasek, eta meatzeen inguruan dauden komunitateek bertatik bertara bizi dituzte. Elda Ramírezen etxe atzeko mendia da Cerro Blancoko meategia, etxeko ataritik ikusten ditu meategira doazen kamioiak, auto blindatuak. Chicek salatu du meategi horretan ez zutela “ezer” atera; erresistentziako komunitateek salatu dute, ordea, enpresak lur azpiko ur kantitate



Tocoako Lempira komunitatea, meategi eremutik ikusita.



Cerro Blancoko ur kutsatuak Ostua ibaira botatzen dituzte, eta hango urak El Salvadorko Lempa ibaira doaz: lau milioi salvadortarren ur iturrira.

“erraldoiak” atera zituela, ur termalak. Horrela, Ramírezen oin azpiko lur eman-korra desertu bilakatu zen. “Lehen he-men zuhaixkak zeuden, uzta nahikoa. Hori dena galdu genuen ura ateratzen hasi zirenean: uzta dena hiltzen zen, animaliak egarriz hiltzen ziren. Lurra zartatuta hausten zen”.

Enpresek aberastasuna  
hitzematen dute, baina  
lanpostuen %1 baino ez  
dute sortzen

GoldCorp enpresak meatzea utzi, eta Bluestone heldu zen; ur termalak ateratzeari utzi zion, eta berriz hezetu ziren Ramírezen uztak. Baina lur azpiko lanek eragina izan zuten uraren konposizioan, eta berez artsenikoa duen urari nabarmen areagotu zitzaion pozoi horren kopurua. “Jada hasi dira umeak giltzurrunetan artsenikoak eragindako arazoak pairatzen”, dio Ramirezek.

Meategi horrek badu berezitasun bat: Guatemalako hegoaldean kokatuta, El Salvadorrekin muga egiten duen lurraldean dago. Meategiak erabilitako urak, kutsatuak, Ostua ibaira botatzen dituzte, eta ibai hori zuzenean doa El Salvadorrera, Lempa ibaira: lau milioi salvadortarren ur iturrira. Kontua Guatemalaz gaindikoa bihurtu da, beraz, eta bi herrialdeetako ordezkarien bilerak izan dira. Baina ekintzaileek salatu dute ez direla inora heldu, El Salvadorrek proposatu zuen bakarra izan baitzen Guatemalak urak beste ibai batera botatzea, El Salvadorri kalterik ez egiteko. Bilerak

bertan behera geratu ziren, eta ur kutsatuen arazoa, konpontzeke.

El Estorren ere, maia q’echi’ komunitateetako kideek urteak daramatzate kalteak salatzen. Bertan meatzea eta palma landaketak batzen dira, eta zuzenean eragiten diote bizia eta jana ematen dien Izabal lakuari. “Palmaz inguratuta gaudе, ezin ditugu gure elikagai sakratuak ekoiztu. Lakuko arrainak kimikoekin hil zituzten. Hau ekoizidua da”, dio komunitateko buruzagietako batek; “Gure aberastasunetako bat dira ibaiak; ibai-rik, basorik, lurrik gabe ez gara ezer. Ezin dugu lurrik eta urik gabe bizi”, gehitu beste batek.

Hondurasen ere egoera antzerakoa da. Tocoan, meatzearen inguruko komunitateetako kideek salatu dute, Lópezek egin bezala, inguru guztian eragin dutela kaltea: airea eta Guapinol ibaia kutsatuta daudela diote, zentral elektrikoaren inguruko etxeetakoek diote etengabe dituztela energia gorabeherak eta, horren ondorioz, kalanbreak.


Meategien ondoan dauden komunitateek kalteak salatu dituzte uztetan, ibaietan eta abereetan.

### INPERIOA, BAINA EZ LEGEARENA

Aipatutako kasu guztiek dituzte Chicek salatutako "irregulartasunak": Guatemala eta Honduraseko legeek ekintza horiek arautzen badituzte ere, gobernuak ez dute behar beste botere legedia betearazteko. "Guatemalan gobernuak ez dauka gehien- gorik edota botererik politika legegileak burutzeko. Gauza bera gertatzen da Hondurasen ere: gobernuak ez du botererik ganbera legegilean, gutxiengoan baitago; eta botere judiziala ez da eraldatu, narkodiktaduren garaikoa da", azaldu du egoera Cabezasek. Alegia, gobernuaren eskuetan gauza gutxi dago: "Botere exekutiboak *de facto* botere horiekin negoziatu behar du: ezin du gatazka ireki botere judizial eta legegilearekin, gobernatu ahal izateko euren premia daukalako".

Hala ere, bi herrialde horietako gobernuak, aurrerakoiak biak, eman dituzte zenbait pauso, eta legedia baliatuta, orain arte aipatutako meategiak geldiaraztea lortu dute. Teorian behintzat, meategien inguruko komunitateetako kideek baitio- te enpresak martxan zeudeneko kutsadu- ra mailak nabaritzen ez badira ere, zara- tak entzuten dituztela; alegia, zerbaitetan ari, ari direla.

Komunitateek argi daukate nork duen beren etorkizunaren gaineko era- bakimen osoa, eta ez da estatua, horrez gaindiko botere faktikoak dira. Herri- tarren, komunitateen etorkizuna ez da ziurra, eta irtenbide bakarra ikusten dute. Honela dio Tocoako biztanle ba- tek: "Hemen bizi denak nora migratu erabaki beharko du". ●



El Estor alboko Lote 9 maia q'echi'komunitateko kideak, meategiaren aurkako afixak eskuan.

## INDIGENEN ESKUBIDEAK

"Ez dago herririk lurrik eta urik gabe". Carmela Cruz abokatu maia q'echi'-aren hitzak dira. Bera kide den bufetea, Bufete para Pueblos Indígenas (Herri Indigenentzako Bulegoa) zuzenean ari da lanean El Estorreko komunitateekin: txosten juridiko bat prestatu dute Guatemalako Estatua Giza Eskubideen Aldeko Gorte Interamerikarrera eramateko. Jatorrizko herrien eskubideak zapaltzea leporatzen diote estatuari, ez baitu legedia bete. Legez, komunitate indigenetan egingo diren ustiatze proiektuetan aurretiazko galdeketa bat egin behar da: librea, informatua eta proiektua hasi aurretiazkoa. Cruzek eta komunitateek salatu dute El Estorren ez zela horrelakorik egin, eta Guatemalako Estatuak beren giza eskubideak urratu zituela.

Guatemala berezitasun bat da Erdialdeko Amerikan. Beraiek ere kolonizazio eta mestizajearen ondorengo izanda ere, faktore indigena askoz sakonagoa da gainontzeko herrialdeetan baino: biztanleriaren erdia inguru indigena da; Hondurasko kasuan, adibidez, biztanleriaren %10 baino

ez. Horrek isla du legedian, komunitate indigenetan aipatutako galdeketa egin beharra baitu estatuak: horrela jasotzen dute Nazioarteko Lan Erakundearen 169. hitzarmenak eta NBERen Herri Indigenen Eskubideen Adierazpenak, biak Guatemalako Estatuak izenpetuak.

Baina gobernuak ez du sinatutakoa bete. Abokatuak salatu du hiru kontsulta egin zirela, hirurak ustelak: setio egoeran zegoen lurraldea, beraz ez zen librea izan; lurraldetik kanpora egin zuten eta, azkenik, akordio batzuetara heldu ziren. Baina egindako kaltearentzako "inolako erreparaziorik" ez zuten aurreikusi, hori salatu du abokatuak.

Cruzen bulegoak aurkeztutako txostenean, salaketaz gain, zuzenbidea herri indigenetara hurbiltzeko saiakera bat ere egin dute. Abokatuak dio zuzenbidea "koloniala" dela, eta ez dituela kontuan hartzen herri indigenek lurrarekiko dituzten loturak. Horregatik dio "erronka handiena" izan dela arauaren berrinterpretazioa egitea, herri indigenen ikuspegia kontuan hartuta. ●



Carmela Cruz, abokatu maia q'echi'-a

1990ean sortua



Aholkularitza zerbitzu

ezberdinak eskaintzen ditugu:

- Zerga-ordainketak
- Merkataritza
- Kontabilitatea
- Legedia
- Lan esparrua

Urbietia, 15. Hernani.

943 33 12 67

Brintza.com



TALLERES  
MITXELENA  
S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000  
Fresadora: 10.000 x 3.500  
Barrenatze mekanizatua

Eziago Poligonoa · Zikuñaga Auzoa  
20120 HERNANI (Gipuzkoa)  
T 943 55 25 12 - 16 · F 943 55 28 16  
info@talleresmitxelena.com

[www.talleresmitxelena.com](http://www.talleresmitxelena.com)

“ ”

# Azokako mahaiaren bestaldetik desprezioa ikusten da, asko

## Onintza Enbeita eta Feli Madariaga

Emakumea eta lurra elkartzen dituen liburua idatzi du Onintza Enbeitak: *Bizitza baten txatalak*. Gure aurrekoen bizimodua jaso du, andre baten ahotan: "Baserria bere horretan, erromantizismorik gabe". Feli Madariaga (1932, Baldatika, Forua, Bizkaia) da andre hori, lurrari emana bizi izan dena Muxikako Igertu baserrira ezkondu zenetik. Biekin elkartu gara, behinola fatxada osoa piper txorizeroz gorri-gorri izaten zuen baserrian.

 EITXU EIZAGIRRE KEREJETA  DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA

**M**uxikako Igertu baserriaren atarian eserita, haien liburu kale-ratu berria lehen aldiz eskutan dutela, orriak pasatzen eta bertan agertzen diren argazki eta izenburuei begira, berriketan hasi dira liburuko protagonista Feli Madariaga eta liburua idatzi duen Onintza Enbeita:

**O. Enbeita:** Polito geratu da; poltsan eramateko modukoa. Begira, Julianegaz [Feliren senarra zenarekin] bere agertzen zara argazkitan. Honela diozu liburuan, "Julianek soroa mimatu egiten zuen".

**F. Madariaga:** Uf! Soroan ez zen erra-

za izaten haregaz ibiltzen! Hark ipintzen zuen piper bat, eta bestea ipini parean, e! "Hemen ez ipini, atera hori piperra eta ipini harantzago!", esaten zidan.

**O. Enbeita:** Batzuk horrelakoak dira. Gure aita eta ni praktikoagoak gara, *txapuzerutxuek*. Baina gure koinatuak bere dena horrela ipini behar izaten du.

**F. Madariaga:** Patata ere... zuzen! Ene! Piperra ipintzen genbiltzanean denak etortzen ziren sorora laguntzera eta Julian haserretu egiten zen, lurra zapaldu egiten zutelako. "Zuk zer gura duzu? Airean ibiltzea? Airean ezin da ibili!", esaten nion.

**O. Enbeita:** Ez, ez, ibiltzeko lurra zapaldu egin behar da! Baina orduan piper asko ipintzen zenuten. Beti pentsatzen dugu "guk gazteok...", baina lehengoek bere bazuze zer kontatu.

**F. Madariaga:** Bai... asko!

**O. Enbeita:** Baina dena ezin da kontatu, eta beno, zatitxo bat batu dugu hemen.

**F. Madariaga:** Gizonagaz *diskusinoa* beti, baina haserretu sekula bere ez. Beti bazegoen zerbait, "hau ez duzu ondo egin" esaten bazidan, "ba egizu zeuk!" erantzun eta aurrera.

**O. Enbeita:** 24 ordu elkarregez egiten zenuten.



**F. Madariaga:** Beharra elkarregaz egun guztian, ohera elkarregaz... dena. Nire gizona ez zen joan fabrikara, eta nik irten egin nuen fabrikatik, ezkondu nintzenean, ze gurago izan nuen txoriaren moduan aire librean aritu, hementxe.

**O. Enbeita:** Orain bere ez zinateke Gernikara joango bizitzera?

**F. Madariaga:** Ni ez, pentsatu bere ez! Hara itotzen pisu barrura; horma jo eta horma jo? Hemen biluzik irteten baduzu bere inor ez daukazu begira.

**O. Enbeita:** Baina gero begira nolakoak gertatzen diren, e! Kulero hutsik irten

nintzen etxe aurrera, jausi eta hanka apurtu. Eta gero anbulantzia etorri behar eta ahizpári eskatu behar, “ekarri iezadazu janzteko zer edo zer”...

**F. Madariaga:** Hau ez da pagatzen diruaz. Bake-bakean. Etxe aurreko kaminoan kotxeak pasatzen direnean haiek ikusi, agur egiten duenari agur egin, egiten ez duenari kasurik bere ez...

**O. Enbeita:** Lehen trafiko gutxiago egongo zen hemen.

**F. Madariaga:** Kotxe bat pasatzen zen hemen, Serafinena. Eta eskerrak; zaharrena-gaz estaduan nengoenean ez zen kotxerik

eta bera pasa zenean berari “alto” egin eta klinikara eramateko eskatu nion.

**Feli, zuk hiru alaba izan dituzu. Eta zu, Onintza, hiru alabetan gazteena zara. Biek entzun behar izan duzue zuen etxeetan mutila falta zela, baserrirako.**

**F. Madariaga:** Bai, baina sarri pentsatu izan dut, mutila edukita bere igual izango zela, agian ez zuela baserrian geratu gurako. Neskek bere egiten dute behar baserrian.

**O. Enbeita:** Gure auzoko Maria zenak esaten zidan: “Zu jaio zinenean zure aitatik negar egin eban, etorri zen gurera eta esan euskun, ‘ai, ai, Maria, gurean orain bere urruxa jaio da...’”, eta ematen zidan ernegu bat horrek! Pentsatzen nuen, “gure aitatik ez ote zidan gurako niri?”, baina keba, gero engainatuta eduki nuen, txikiena izan nintzen eta gure amak beti esaten zidan, besteei egin ez zien kasu guztia niri egin zidala aitita Balentinek. Baina orduan pentsatzen zen gizonak behar zirela aurrerako, baserriari eusteko.

**F. Madariaga:** Bai, baina neskek bere berdin egiten dute behar. Gurean denek egiten dute soroan, traktore txikiagaz.

**Lehendik ezagutzen zenuten elkar. Onintza, libururako Feli elkarrizketatu duzunean, zerbaitek eman al dizu arreta?**

**O. Enbeita:** Bai. Nik pentsatzen nuen Feliren adineko andrak, nire amonaren adinekoak, denak konforme zirela tokatu zitzaaien bizimoduaz. Baina Felik elejitu egin zuen baserrian bizi izatea, fabrikatik irten egin zuelako baserri-  
ra etortzeko. Hor aldatu egin zitzaidan ikuspegia.

Liburuan kontatzen du: “Niri ez zitzaidan hondartza gustatzen eta alabak aitagaz joaten ziren hondartzara”. Gaur egun dena nahi dugu, nahi dugu baserrian bizi, piperrak eduki, baina oporretara joan... eta hori barik konforme eta zoriontsu izan ahal dela ikustea lezio handia izan da.

**Feli, damutu zaizu noizbait fabrika utzi izana?**

**F. Madariaga:** Alde batera bai, ze jubilazioa handiagoa izango nuen. Baina ni hemen feliz nabil, sorora joango naiz ahal dudan artean. Aurten bere egin dut jorran, belar zantarrak ateratzen. Eta indabak eta piperrak egin ditut. Besoagaz gorako beharrik ezin



### LIBURU AURKEZPENA

Urriaren 10ean, ostirala, 18:30ean  
Muxikako Igertu baserriaren atarian.

## BIZITZA BATEN TXATALAK

*Andre bat lurrari emana*

ARGIA, BIZI BARATZEA SAILA, 2025

**EGILEA:** Onintza Enbeita Maguregi

**DISEINUA ETA ILUSTRAZIOA:** Maitane Gartziandia

**ARGAZKIAK:** Dani Blanco / ARGIA CC BY-SA

**ARGAZKI ZAHARRAK:** Feli Madariagak utziak

**PREZIOA:** 15 euro

Erosteko: [azoka.argia.eus](http://azoka.argia.eus) webgunean; edo Gernikako astelehenetako azokan, Enbeitaren mahaian.

**ESKaintza:** Irailaren 21 arte ARGIAko kide eginda, liburua opari. Horretarako: deitu (+34) 943 37 15 45 zenbakira edo sartu [www.argia.eus/eginargiakoa](http://www.argia.eus/eginargiakoa) webgunean.

dut egin, behean eduki behar dut besoa, horregatik, aitzurraz jorratzen itzel ibiltzen naiz. Orain askoz astiroago egiten dut behar, pentsatzen dut "hauxe egin behar nuke", baina ezin ailegatu.

**Onartzen duzu orain soroan gutxiago egitea, edo ernegatu egiten zara?**

**F. Madariaga:** Lehen gehiago ernegatzen nintzen. Orain ahal dudana egiten dut eta besteeke bere ahal dutena egin dezatela. Soroan ezer ateratzen bada ondo, eta bestela bere bai.

**Orain ere piper txorizero korda batzuk zintzilik dituzue atarian. Garai batean fatxada osoa egoten z en Igertun piperrez estalita. Zuetako bakoitzak zer pentsatzen zuen hori ikusita?**

**F. Madariaga:** "Ze lana! Zelan egin dugu honenbeste?", pentsatzen nuen. Errespeto handiena eskegitzeak ematen zidan, ze gure gizona eskailera puntaraino igotzen zen, "armiarma-gizon" esaten nion. Behean traktorea jarri, traktore gaineen eskailera eta puntaraino igota jartzen zituena kordak, nik ematen nion gako luze bategaz hartuta. Hark ez zuen bertigorik izan. Eta orain gurean denek dute bertigo, neu hasita.

Gero piper haiek bajatu, txarrak apartatu, plazara eroan...

**O. Enbeita:** Guk umetan ikusten genuen

Igertuko etxea dena piperrez beterik eskolako autobusetik eta betiko geratu zait rekuerdia, gauza polit baten moduan, postal baten moduan. Gure etxean bage-nekien zer den piperrak kordatzia, baina ez ginen kontziente horrek denak zer esan gura duen. Gero denboragaz konturatzen zara behar hori benetan zenbat denbora den.

**F. Madariaga:** Ikusteko polita izaten zen. Pasatzen ziren guztiek erretratua ateratzen zioten, amerikanoek, mexikarrek, kubatarrek...

**O. Enbeita:** Guk etxean piper kordak beheko suaren ondoan edo etartean eskegitzen genituen, baina hemen fatxadetan, berezia zen. Betirako buruan geratu zaigun argazki bat da, niri, eta Muxikan galdetzen badugu, jende gehienari.

**F. Madariaga:** Bai, "piperren etxea" esaten dute, orain bere entzuten diet bizikleteroei.

**Beti izan zen horrela Igertu, edo zu Igertura ezkondu zinenen bete zen piperrez?**

**F. Madariaga:** Neu etorri nintzenen. Hortxe beheko soroan jartzen genituen: erdia piperra, beste erdia artoa eta beste lur batean soroa, piperrak han jartzeko hurrengo urtean. Piperrekaz apurka-apurka hasi ginen, baina gero... jendea piper bila etortzen zen, puntako berdeak

bere eroaten zituzten! Hornitu ezin ibiltzen ginen. "Datorren urtean gehiago ipini beharko ditugu!", esaten genuen, eta gure buruaren kontra, arlo gehiago jartzen genituen piperregaz. Baina hori berdura guztiagaz gertatu zitzaigun.

“ ”

*Fabrikan baino  
gurago izan nuen  
txoriaren moduan  
aire librean aritu,  
hementxe*

Feli Madariaga

**Gauean ze ordu arte egoten zineten piperrak kordatzen?**

**F. Madariaga:** Lehenik soroko beharrak bukatu, afaldu, eta 00:00etan amaitzen genuen behiak jezten, kortako beharrak egiten, umeak oheratzen... Orduan has-ten ginen piper josten, 03:00ak arte. Eta hurrengo goizean 06:00etan altxa, koda-na hartu eta belarretan, egun guztiko

belarrak ekartzen ganaduarentzat. 30 buru genituen kortan: hamabost behi eta euren txahalak, eta haiei eman egin behar izaten zitzairen belarra. Oraingo behiek ez dute jaten belarrik, pentsua eta sikua soilik.

**O. Enbeita:** Lehen ganaduarentzat belarretik aparte gauza asko egiten zenituzten.

**F. Madariaga:** Erremolatxa, arbia, arto kukulua... Frantsesa [pagotxa] bere bai, arto artean ereiten zen. Lastoa txikituta bere ematen zitzairen. Inoiz egin dugu, belarrik eduki ez dugunean, basora joan eta haritz adarrak ekarri, orriak apartatu eta ganaduari haiek eman.

### Lana asko egin zenuten. Bizitzeko adina irabazten zen?

**F. Madariaga:** Orduan bai, baserriak asko eman zigun. Etxetik bertatik saltzen genuen: udan domeketan etortzen zen jendea hondartzara Galdakaotik, Bilbotik... eta bueltakoan, 15:00etan etortzen ziren gure etxera jeneroaren bila, baina ordu horretan baratzeraz joateko bero handia egiten zuenez, egun batean esan nien ea zergatik ez zuten ipintzen goizean oharra idatzita zer nahi zuten, eta eguerdirako izango nuela prest jeneroa, haiek hondartzatik itzultzerako. Geroztik, urteak egin ditugu horrela. Bainak, azelgak, piperra, indaba... zegoen guztia eroaten zuten. Etxetik saltzen genuen. Harakinak bere etxera etortzen ziren erostera Bilbotik, Bermeotik, Gernikatik... Zuzenean saltzen genuen jenero dena, etxetik, eta plazara amaginarreba joaten zen, eta gero ni hasi nintzen. Porrua soro oso bat izaten genuen, ez dakit zenbat ziento ipintzen genituen, baina asko, zeren astelehenero 20 dozena eroaten genituen plazara eta denak saltzen ziren.

**O. Enbeita:** Eroan orain!

**F. Madariaga:** Atzera itzuliko zara eura-kaz. Antzinan ondo saltzen zen.

**O. Enbeita:** Baina dendarik bere ez zegoen.

**F. Madariaga:** Ez, eta jendeak pasaeran soroa ikusten zuenez, eskatu egiten zuen.

### Biak aritu zarete Gernikako astelehenetako azokan saltzen. Noiz gogoratzen duzue azokaren garai indartsuena, eta zergatik apaldu da?

**O. Enbeita:** Esango nuke gure amona joaten zenean orain baino errazago saltzen zela, 1980ko urteetan edo.

**F. Madariaga:** Bai, orduan plazara eroaten zena saldu egiten zen behintzat.

**O. Enbeita:** Orduan etxean batek egiten zuen behar eta astelehen goiza libre edu-



FELI MADARIAGA UTZIA

Piper txorizeroek lertu baserriko fatxada osoa hartzen zutenekoa.

kiko zuen, hori izan daiteke arrazoi bat. Eta horrez gain, orain Gernikan daude Mercadona, Eroski, Dia, Lidl, Aldi, BM, Alcampo... edonon erosi daiteke. Eta ez da egia merkeagoa denik plazakoa baino.

Ohitu gara gauzak distiratsu erosten, eta plazan beti esaten diot jendeari, guk ezin dugu horrela ekarri jeneroa, hori ez delako existitzen. Jada jendeak erosteko erreparatu gehiago dauka. Eta ohiturak aldatu dira: plazan aste osorako erosi behar duzu.

asko dituzu. Eta urte guztian edozer. Guk ezin dugu tomaterik eduki Gabonetan. Ez dago. Baina joaten bazara dendara, badaude. Errazera ohitu gara: joan dendara eta erosi edozein momentutan edozer, berdin dio nondik datorren, ez dugu begiratzeko. Jendea horrela ohitu da eta orain hori aldatzea gaitza da.

**F. Madariaga:** Orain, jeneroa...

**O. Enbeita:** Indaba, tomateak, piperra, horiek sikiera oraindik estimazioa daukate, baina esaterako piper txorizeroa asko kostatzen da saltzea, ze inork ez du txorizorik egiten, lau gelditzen gara, baserrietan.

### Zer ikusten da azokako mahaiaren bestaldetik?

**O. Enbeita:** Jende batek eskertu egiten du baserriko jeneroa eta pozik etortzen da erostera. Desprezioa bere ikusten da, asko.

**F. Madariaga:** Bai, piperra arinago hazten da negutegikoa, eta lurrekoa eroan genuenean, prezioa esan eta "beste lekue-tan askoz merkeago dago" esan zigun batek, eta azaldu genion, "bai, baina hauek lurrekoak dira" eta berak erantzun: "Denak dira lurrekoak! Denak dira igualak!".

**O. Enbeita:** Batzuetan barre egiten duzu, ze konturatzen zara jendeak ez duela arrastorik bere. Behin batek esan zidan: "Begira zelako bainak erosi dizkiodan hor andra bati"; eta esan nion: "Bainak orain,

“ ”

*Neskek bere egiten dute lan baserrian*

Feli Madariaga

**F. Madariaga:** Eta kargagaz ibili beharra dago, kotxeak ez direlako bertan apartakatu.

**O. Enbeita:** Supermerkatuetan, aldiz, denetan daukazu parkinga. Erraztasun



urtarrilean? Horiek Mercabilbaokoak dira! Hemen ez dauka inork urtarrilean bainarik!". Galdu egin da jakintza hori, Felik askoz gehiago daki gure belaunaldiak baino. Nik aitagaz ikasi dut sasoi bakoitzean zer dagoen, zergatik diren hobeak neguko azak udakoak baino... hori dena galdu da.

**F. Madariaga:** Esaten diozu "hori baserriko indaba da" eta erantzuten dizu "bai, Eroskin bere indaba goxoak daude; igarri bere ez zenioke egingo". Berak ez du igarriko baina noizko saltsa loditu?

**O. Enbeita:** Eta azala bere lodiagoa da. Nik ongi ikusten dut zuk nahi duzun lekuan erostea, baina igarri egiten da. Denari igartzen zaio, asko gainera.

**F. Madariaga:** Porru dozena erdia 2,5 euroan eduki nuen saltzen eta batek esan zidan: "Ez dizu lotsarik ematen hainbes-

te eskatzea lurra ematen duen zerbaitegatik?"; nik esan nion: "Lurrari jaten eman behar zaio, behiari bezala, esnea eman dezan. Lurra ez du ematen, ematen ez badiozu".

**O. Enbeita:** Agian pentsatuko du porruak basoan irteten direla, berez! Ez zizun beste batek galdetu sagarrak ikusita ea toma-teak ziren?

**F. Madariaga:** Eta beste batek piper landarea ikusi eta tomatea ote zen galdetu zidan. Udaletxeari proposatu nion ea zergatik ez dituzten taldeak antolatzen, soroan erakusteko gauza bakoitza zer den, ze jendeak ez daki. Barre ederrak egin nituen Muxikako eskolan esnea nondik datorren galdetu eta "Eroskitik" erantzun zutenean! Pentsatu nuen, "gure umeek esnea nondik datorren behintzat badakite".

**Plazara joatea gustatzen zaizue?**

**F. Madariaga:** Bai, ze gero elkartzen ginen hamar andra eta joaten ginen Biltoki tabernara, pintxoak jan, kafesnetxoak hartu, barre batzuk egin... eta atzera plazara itzultzen ginen.

**O. Enbeita:** Jendeagaz egoteko aitzakia bat da. Niri plaza gustatzen zait, ez Gernikakoa bakarrik, joaten zara beste herri batera eta plaza baldin badago jendea batzen da, elkarrizketa dago... baina ezin da joan aberastera. Zu zenbat urtera arte joan zinen plazara?

**F. Madariaga:** 83 gaz utzi nion. Plazarako behar asko egin behar da. Porru garbitzen aritzen nintzen barikuetan.

**O. Enbeita:** Bai, bai, astelehenean eroateko asteburu guztia egin behar duzu horri begira.

“ ”

*Duela 60 urteko  
baserria agian ez dago  
hain urrun gaur egun  
izan behar lukeenetik*

Onintza Enbeita

**Baina Feli, baserrian festa egiten ere jakin duzue...**

**F. Madariaga:** Jai egunean bere behar egiten zen, eta senarra eta biok Gernikara 22:30ean joaten ginen, ganadua gobernatu eta umeak ohean utzita. Goizeko 04:00etan itzultzen ginen.

Ganadu-hiltzailea zen gizona eta txerri-hiltzeetan upielako juergak egiten genituen. Santutxutik hogeitaz lagun inguru etortzen ziren. Mark Kurlansky [kazetari eta idazlea, hainbat elikagaien historiaz eta euskal kulturaz idatzi duena] amerikanoa egona dago hemen txerri-hiltzean, Iturrieta kazetariagaz batera. Gernikara bere joana nago Kurlanskygaz, edadeko bat gura zuelako gerrako kontuak esateko.

**Gernikako bonbardaketan bost urte zenituen baina liburuan kontatu duzu nola bizi izan zenuen.**

**F. Madariaga:** Bai, primeran gogoratzen dut, oraindik bere ikusi egiten ditut abioiak. Baldatikan [Foruko auzoa] fron-

tea egon zen, upielako trintxerak eginda mendietan. Gu aiteitagaz geunden belarretan eta “*txori baltzak datoz eta etzun!*” esaten zigun. Gisatzak [erratz edo ginar landare zuhaixkarak] egoten ziren landatan eta gisatzen azpian sartzen ginen hegazkinak pasatu arte. Arratsalde osoan aritu ziren hegazkinak Gernikara joan-etorrian.

Gero Forura jaitsi ginen, aitita eta osaba bategaz. Eta han etxeko zirrikitu batetik ikusten genituen tankeak pasatzen. Osaba igotzen zen Baldatikara gauaz, ganaduari jaten ematen. Aita eta ama non ziren bere ez genekien, ezkutatuta egon baitziren astebetetz. Haiengatik galdetzen genuenean aitikak esaten zigun: “Etorriko dira, egon trankil”.

Egun batean iturrira joan zen aitita eta ez zen etortzen. Begiratu genuen, eta aitita horma kontra zuten bizpahiru soldaduk, metrailaz apuntatuta. Arrapaladan joan ginen bilobok eta ni aitarien lepora igo nintzen, eta besteak haren hanketara itsatsi ziren. Soldaduek esan zioten: “Tira, zoaz etxera” [gaztelaniaz]. Salbatu egin genuen aitita Kastor.

#### **Etxean dantzan agertzen zara liburuko argazki batean. Zure amaginarreba panderojolea zen.**

**F. Madariaga:** Bai. Plazan jotzen zuen, baina nik etxean ikusi nuen jotzen. Gabon gauaz eta Gabon Zaharretan denok juntatzen ginen eta salan egiten genuen erromeria, hark panderoa jo eta gu denok dantzan. Kantatu itzel egiten zuen, antzinako kantak. Hura beti ibiltzen zen kantetan eta panderoa jotzen.

#### **Ezagutu al zenituen behartutako ezkontzak?**

**F. Madariaga:** Bai, ipinitako ezkontzak. Zaharragoetan asko. Gure belaunaldian ez; gustukoa ez bazen, begiratu bere ez.

#### **Orain baserri asko husten ari dira.**

**F. Madariaga:** Baserritik bizimodua ateratzeko orain ez dago.

**O. Enbeita:** Bai, baserri asko jausteko zorian daude. Baina beno, beste batzuk konpondu bere egiten dira-eta...

**F. Madariaga:** Igual gauzak kanbiatuko dira.

**O. Enbeita:** Jendea igual bueltatu egingo da baserrira.

**F. Madariaga:** Izan daiteke. Mundua eta denbora asko aldatuta dago-eta.

**O. Enbeita:** Bai, *denbora* bai, aurtón!

**F. Madariaga:** Lehengo denborak ez dira hauek. Beroak handiagoak dira, larria-

goak. Lehen bere berotan ibiltzen ginen belar fardotan, baina ipar-haizea egoten zen, haize freskoa. Orain haizea epela da, itoa!

**O. Enbeita:** Denboraleak bere asko, udan euria, upielako trumoiak eta inetaziak, lehen baino gehiago.

**F. Madariaga:** Kanbio handia dauka.

#### **Nola ikusi nahi zenuke Igertu baserria etorkizunean?**

**F. Madariaga:** Nik gustura ikusiko dut landa horiek garbi edukitzea, baina ez dakit zer izango den. Etxean ez badago egin behar duena, diferente da dena. Gurean gizona bizirik egon balitz guk ez genuen alaben laguntzarik beharko, traktoreagaz norberak egin eta aurrera.



MAITANE GARTZIANDIA

#### **Onintza, zuretzat zergatik da inportantea Feliren belaunaldiko historia kontatzea?**

**O. Enbeita:** Guk buruan egin dugun irudia ez delako egia. Niretzat garrantzitsua da galdetzea, jakiteko benetan zelan izan zen euren bizimodua. Feligaz egon eta gero konturatzen zara gauza asko eurek aukeratu zituztela. Izan direla euren bizimoduen jabe. Eta bizipe-nak eurek kontatzea garrantzitsua da. Badakigu Gernika bonbardatu zutela, badakigu plaza astelehenetan aspalditik egin dela, badakigu baserriko bizimodua zer den... baina norbaitek zuzenean kontatzen duenean erromantizismo asko kentzen zaio.

Gaur egun jendeak esaten dizu “egingo dugu agroekologia edo ekologikoa eta

ez dugu egingo tradizionala edo konbentzionala”, eta hori dena ongi dago, baina entzuten baduzu zelan egiten zuten duela 60 urte, agian ez dago hain urrun gaur egun izan behar lukeenetik: etxe guztietan egoten zela denetarik, ganaduentzako janaria egiten zela, botika gutxi botatzen zela...

**F. Madariaga:** Juliani ez zitzaion gustatzen botikak botatzea belar txarrak hiltzeko. “Eskuakaz ateratzea hobe”, esaten zuen. Nik aitzurraz egin dut aurtón!

**O. Enbeita:** Garrantzitsua da ikustea kate batean gatzela, zaitxu hori existitu dela eta hortik gatzela. Duela 20 urte baino gehiago Muxikari buruzko liburu bat egin zen: oso ongi dago liburu eta bost elkarriketa ditu, baina kasualitatez elkarriketak denak dira gizonak. Lehengo bizimoduaren berri emateko, andrak bere bizi ziren! Ezin da %50a existitu ez balitz moduan kontatu. Niretzat oso inportantea da señora hauek kontatzeko dutena kontatzea.

#### **Feli, eskolara noiz arte joan zinen?**

**F. Madariaga:** Hamabi urtera arte. Maistrak *maketak* ziren. Eta euskaraz egiten bagenuen “*hablar en cristiano!*” (hitz egin kristaueraz) esaten zuten. “Kristaueraz ari gara, zuk ikasi behar duzu euskaraz!” [gaztelaniaz] erantzun zion behin batek. “Etorri hona!” [gaztelaniaz] deitu zion maistrak eta kokoteko bat eman zion. Erregelagaz bere jotzen gintuzten buruan. Etxera joan eta “zuk bere zerbait egingo zenuen, eta!” esango zizuten eta hortxe bukatzen zen dena.

Zer ikasten zen, bada, orduan? Liburu bat ematen zuten eta arbelak genituen gehiketak eta kenketak egiteko. Baina irakasvteko interesik batere ez zuten, eta etxean bere andra denen karrera, hutsa: “Andrekin etxeko beharra eta mutilekin estudiantu”, hori zen mezua.

#### **Orain baduzu zure liburua.**

**F. Madariaga:** Bai! [barreak]

**O. Enbeita:** Zer pentsatzen duzu esango dutela liburua irakurtzen dutenean?

**F. Madariaga:** Hori da nik buruan sartuta dudana... Denei ez zaie gustatuko. Zuk zer uste duzu?

**O. Enbeita:** Nik pentsatzen dut gustatuko zaiola jendeari. Eskuzabala izan zara, gauza asko kontatu dituzu.

**F. Madariaga:** Baina inoren bizimoduan sartu barik.

**O. Enbeita:** Ez, ez, zuk zeurea kontatu duzu. ●

## KARTA JOKOA

# Gozamen erraldoirako joko berria

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

**N**oiz joango gara erraldoiak ikus-tera? Non egingo dute hurrengo dantza? Non astinduko dituzte berriz maskuriak buruhandiek? Erraldoien lilurak harrapatuta duen norbait etxean baduzu eta horrelako galderak egin ohi badizkizu, asteak pasatzen badituzue erraldoiak berriz noiz ikusiko, hemen duzue pertsonaia hauekin urte osoan jolas egiteko beste aukera bat: erraldoi eta buruhandien karta jokoa kalean da!

Adur Larreak egin ditu ilustrazioak, *Abentura erraldoia* liburu-bildumaren marrazkilari berak, eta irakurri dituenak ikusiko du karten eta liburuen arteko lotura ñimiño bat. Ez bata bestea behar izaterainokoa, bakoitzak bere aldetik funtzionatzeko bezain libre, biak ezagutuz gero pertsonaia eta irudi batzuen lotura egiteko moduan. 42 erraldoi eta buruhandi biltzen ditu karta jokoa, genero eta lurralde aniztasuna kontuan hartuta. Euskal Herri osoan zehar hara eta hona ibili dira –ez egun txarrenetan, beti festa giroan!– peskizan, erraldoi ederrenen bila. Eta zein izan diren hautatuak? Ai, irakurle, txiste guztia ezin esplikatuko dizut, intrigazko liburu eta filmak hain

Caravinagre, Mari, Ojobiriki eta Basajaun zalea bazara, gustura hartuko duzu erraldoi eta buruhandien karta jokoa.


modan dauden honetan, nik ere utzi nahi dut misterio pixka bat.

Esango dizudana da memoria eta familia jolasetarako prestatutako karta-sorta dela, zazpi familiaz osatutako bilduma, familia bakoitza sei kidek osatzen dutela –hiru bikote, memoria jolaserako balioko dutenak–, eta ez direla falta Caravinagre, Mari, Ojobiriki eta Basajaun. Sanferminetako familia,

kirolariena, pertsonaia ezagunena, lanbideena, buruhandiena, *Abentura erraldoia* ipuin-bildumarena eta familia mitologikoa dira zazpi talde nagusiak eta bakoitzeko kide batek familia osoaren azalpen azkar bat egingo digu kartaren atzealdean.

Salgai daude jada gozamen erraldoirako pentsaturiko kartak azoka.argia.eus atarian. ●





# Langileen babesa, blitz eta Churchillen aurka



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**L**ondres, 1940ko irailaren 7a. Hegazkin alemaniarrek hiria bonbardatu zuten, Britainiar Uharteen eraso masiboa abiatuta. Edo, bestela esanda, *blitz*-a hasi zen. 1941eko maiatzera arte luzatu zen eta, amaitu zenean, britainiar lehen ministro Winston Churchillek “su artean denok elkarrekin aurrera egin” izana jo zuen erresistentziaren gakotzat. Eta *blitz*-aren aurkako erresistentzia eta elkartasunaren sinbolo nagusietakoa Londreseko metroko tuneletan babestu ziren herritarren argazkiak dira.

Baina argazki horiek ez ziren egin Churchillren gobernuari esker. Alderantziz, britainiar gobernuaren debekuaren aurka, langileek egindako ahaleginak ahalbidetu zuen irudia.

Irailaren 7ko gauean bertan, bonbardeketez gehien kaltetu zituzten eremuak East Endeko langile auzuneak izan ziren, hiriko gune industrial nagusia jomuga baitzuten erasoek.

Auzo aberatsak babeslekuz ondo hornituta zeuden, baina East Enden ez zegoen bunker nahikorik bertako biztanleentzat. Eta gobernuak herritarrei metroko tuneletan babestea debekatu zien, sarbideak itxita. East Endeko langile mugimenduko kideek –nagusiki, alderdi komunistako militanteek– kanpaina bat abiatu zuten orduan, metroko atea irekitzeko eskatzen. 100.000 eskuorri banatu zituzten, 5.000 kartel jarri... baina, gobernuak entzungor jarraitzen zuenez, ekintza deigarriago bat egitea erabaki zuten. Irailaren 14an, 100 bat lagunek Sa-



voy hotelaren babeslekua okupatu zuten, erdigune aberatsaren bihotzean.

“Egoera muturrera eramatea erabaki genuen” kontatuko zuen gero Phil Piratin ekintzaile komunistak. “Polizia etorri zenean han zer egiten genuen galdetu ziguten; ez zegokigun toki bat hartzen ari ginen. Erantzun genien ez genuela hor egon nahi, metroko atea irekitzea nahi genuela”.

Ekintzak oihartzuna lortu zuen behintzat. “East Endeko langileek Savoy inbaditu dute zioen prentsako titular batek, *blitz* betean langileak inbaditzailatzat jotzeko inolako lotsarik gabe. “Pribilegioak eskatzen dituzte Londresko luxuzko ho-

telean”, gaineratzen zuen artikulua.

Ateek itxita jarraitzen zutenenez, East Endeko biztanleen artean metroko atee-tara hurbiltzeko deia zabaldu zuten orduan. Gobernuak soldaduak bidali zituen atea babesteko, baina geroz eta jendetza handiagoa bildu zen, burdin-hesiei bultzaka hasi ziren eta, presioa jasanezina bihurtu zenean, orduan bai, gobernuak amore eman eta herritarrei gauez metroan babesteko aukera eman zien.

Gatazka hori langileek irabazi zuten eta metroko argazki ezagunak langileen elkartasunaren sinbolo izan beharko lukete. Baina domina hori ere Churchillek bere paparrean zintzilikatu zuen. ●



## Apoak klima aldaketaren seinale

Vichamako (Peru) aztarnategian, arkeologoek 3.800 urte inguruko estatuatxo berezi bat aurkitu berri dute. Caral zibilizazioaren azken arokoa da, eta bi apo irudikatzen ditu. Aztarnategi bereko hainbat hormairuditan gosetea, lehortea eta, finen, ingurumen krisiari lotutako irudiak

ere margotu zituzten. Andetar kulturetan apoia euriaren, uraren eta bizitzaren eraberritzarean sinbolo izanik, arkeologoek uste dute aurkitu berri duten apo pareak duela 4.000 urte eskas inguru haietan gertatutako klima aldaketaren hipotesia baieztatzen laguntzen duela. ●

# ENPATIA GARAIA



**JUNKAL ARRUTI TENA**  
EKO-FEMINISMOA EDO  
HERIOTZA

**E**kofeminismoak bizitza nondik eta nola baloratzen duen, ikuspegi konplexuagoa eraikitzeke proposamena dakart. Desazkundearen inguruko ekofeminismoa eta antiespezismoa ezagutzearen ondorio dira datozen lerroak; landa eremuan jaio eta hirigunean bizitzeak dakartzan ikuspegiekin; eta aktibismoaren eta amatasunaren esperientzia politiko eta pertsonalekin.

Minbiziak gure haurra eraman duela denbora gutxi pasa den honetan, eta bera galtzearen mina zein handia izan den inork zalantzan jarriko ez duela jakinda, gizakiaz besteko animalia bakoitzaren bizitzaren garrantziaz aritu nahiko nuke.

Maite ditugunak galtzearen enpatiatik abiatuta, imajinatuzera heldu gaitezke, esaterako, behi batek esnea ematen jarraitzeko bere kumearengandik banatzeak sortu diezaiokeen mina nolakoa izan daitekeen. Animalistak kolektibo antiespezistak duela urte batzuk bere proiektu batean zioen bezala, "animaliek egiten diegun guztia sentitzen dute". Dela kumea amagandik banatzea, dela beren gorputzak gizakion intereserako esplotatzea, izan jateko, janzteko, esperimintatzeko.... edo ondo pasatzeko.

Ikuspegi ekologistatik zenbait datu dakartzat: munduan, urtero 100.000 milioi animalia elikatzen ditugu 8.000 milioi pertsona elikatzeko (12 bider gutxiago). FAOren (ingelesez Elikadura eta Nekazaritzako Ustiatzearen Erakundea) arabera, haragi eta esneki ekoizpenek askoz ere lur eta ur gehiago behar dituzte landare jatorriko elikagaiak baino. Adibidez, kilo bat behi haragi ekoizteko 15.000 litro ur inguru behar dira. Dilistekin proteina kantitate berdina lortzeko 5.500 litro.

Landare proteina (dilistak, ilarrak, soja...) hazteko animalia jatorriko proteina ekoizteko baino 3-10 aldiz ur gutxiago behar da, 20-60 aldiz CO2 gutxiago isurtzen da eta 5-50 aldiz lur gutxiago



erabiltzen da. Beraz, aztarna ekologikoa txikitzeko modu eraginkorrenetako batzuk industria intentsiboa baztertzea eta animalia jatorriko produktuen kontsumoa murriztea dira. Abeltzaintza extentsiboak baldintza hobeak eskaintzen dituen arren, animalien dominazioa ematen jarraitzen da -instrumentalizazioa, askatasun eta autonomia eza, erreproduktzio kontrola eta erahiltzea-.

Azkenik, gizakion osasunari erreparatuz gero, erakunde ofizialek diote, zientifikoki frogatutako datuen arabera, landareetan oinarritutako elikadura orekatua gizakion bizitzako edozein arotan onuragarria dela (hautzaroan, haurdunaldian...), gaixotasun kroniko arrunten arriskua murrizten duela dieta omniboroekin alderatuta, eta mikrobiotaren eta osasun orokorraren gaineko eragin positiboa duela.

Hausnarketa eta datu hauek guztiak mahai gainean jarrita, hainbat galdera egiten hasi gaitezke. Hobe da bertako txerri bat hiltzea jateko, Frantziatik datorren sojarekin egindako tofua baino? Baina ba-

dakigu txerri horren pentsuaren jatorria? Eta jaso dituen txerto eta antibiotikoena? Eta non hil duten? Are gehiago, beste izaki sentikor baten heriotzik suposatzen ez duen elikagaiak baditugu eskura, etikoa al da txerria jatea? Pribilegio kontua izan daitekeela konturatzen al gara? Zergatik txerri hori jateko "behar" hori? Zaporea, tradizioa eta legalitatea beste izaki sentikor batzuk erailtzeko arrazoi nahikoa al dira? Zergatik nahiago dugu besteek gure ordezkariak (eta kontzientzia) odolez zikintzea? Eta ardura hori nork hartzen duen ba al dakigu?

Bada garaia arrazoi ekologistak eta etikoak kontuan hartu, eta gizakiaz besteko animaliak nola tratatzen ditugun eta gure sistemetan duten lekua birpentsatzeko. Bada garaia agroekologiaren bereizgarrii -merkaturatze zirkuitu laburrak, lan baldintza duinak eta bertakoak, garaikoak eta ekologikoak diren produktuak, besteak beste- %100 landare jatorria batzeko. Prest al gaude guztion bizitzak erdigunean jarri eta ikuspegi antropozentrikoa deseraikitzeke? ●

## A ZE FAUNA!

## IZARREN HAUTSA

Itsas izarrak animalia ekinodermatuak dira, itsas triku, holoturia eta luma-mototsekin batera taldekatzen direnak. Haien simetria erradialak eta hainbat puntako gorputzak zerura begira jartzen gaitu.

Talde honek biltzen dituen 1.500 espezie ingururen artean, ia denak itsas hondoetako harkaitz eta hondar guneetan mugitzen dira, eta gutxi batzuk hondarpean ere bai. Bost beso izaten dituzte gehienek ("pentameroak"), baina badira gehiago dituzten espezieak (adibidez, "eguzki izar" deiturikoak, 7-20 besodunak).

Gure kostaldean itsas izarren bat aurkitu eta ezagutu nahi izanez gero, Zumaiaiko Flysh-era edo Urdaibaiko biosfera bezalako txokoetara gerturatu besterik ez dugu. Besteak beste, gurean ohikoena dena han inguruan topatuko baitugu: itsas izar arantzaduna. Itsas izarren artean nahiko handia den espezie honek (80 cm izatera heldu daiteke), erdiguneko diskoa txikia du eta bertatik aterako dira bost beso lirain eta arantzatsu. Beso bakoitzak kono itxurako arantza zurizko hiru lerro ditu gainazalean eta hauen tontorrean puntu more edo horia, naturaren gutizia txiki

moduan. Arantza bakoitzak, inguratzen duen pedizelarioen koroa bat du, besoa garbi mantentzeaz arduratzen diren luzakinen sorta. Arantzen baso horretan topatuko ditugu uzkia eta "plaka madreporitikoa"; azken hau, uraren iragazketa kontrolatzen duen karezko egitura da eta arnasketa aparatuen ardatza, ura iragaziz, behar duen oxigenoa lortzeko. Arantzaz jositako gainazal latzaren azpian, erdiko disko txikitik bost lorratz-lerrok ematen die "hanka anbulakral" txikiz beteriko launa ilarei babesa. Eta hanka hauek dira, hain zuzen ere, itsas izarren "pauso" motel baina sendoen arduradunak. Mugimendu moteleko animalia den arren, jatun amorratua da, harraparia eta sarraskijalea. Harrapakinak belakiak, anemonak, koralen polipoak, beste ekinodermo batzuk (itsas trikuak, barraskiloak), bibalboak, krustazeoak, harrak nahiz arrainak dira.

Itsas izar arantzadunaren kolorea alez ale alda daiteke, gris-berdexka edo marroia gehienetan. Itsas izar gazteen kolorea apalagoa izan ohi da, eta sakonera handiagotan bizi diren helduena, aldiz, biziagoa. Beso bakoitzaren muturrean orban arrosa bat ageri da, funtzio

sentsoriala betetzen duena, azpiko substratua ezagutzeko.

Ezaguna da itsas izarren birsortzeko gaitasuna. Animalia hau estresatzen denean, bere hanka bat edo batzuk askatuko ditu. Ez kezkatu, berriro haziko dira! Hala, ohikoa da aleak hiruzpalau beso handi eta beste bat edo bi txikirekin ikustea -galdu dituenak hazten ari direlako-. Pairatutako erasoren batean disko zentralaren zati bat galduz gero ere, hura birsortzeko gai da. Beso bakarra eta erdiko diskoaren bostena nahikoa ditu bertatik izar osoa birsortzeko. Gainera, asexualki ere erreproduzitzeko gai da, erdiko diskoa zatituta edo beso osoak askatuta, eta hala gainerako zatiak birsortuta.

Itsas izarrak itsas ekosistemaren osasunaren adierazgarri dira; beraz, baldintza egokiak izateari uzten diotenean, desagertu edo lekuz mugituko dira. Zeruko izarrek hantxe jarraituko dute gu ez gaudenean. Itsas izarrek ziurrenik ere bai, duten erresistentziari erreparatuz gero. Baina adin bat dugunok ongi gogoratzen dugu zenbat ikusten genituen inguruko harroketan gaztetan; eta zenbat ikusi ditzakegun gaur egun. Ez ditzagun bada itsas azpikoak itzaldtu. Izarren hautsa bizigai; itsasoan, ere bai. ●



NAGORE ZALDIA MENDIZABAL  
ARANZADI ELKARTEKO KIDEA



DIEGO DELSO / WIKIMEDIA COMMONS

## ITSAS IZAR ARANTZADUNA

### *Marthasterias glacialis*

**TALDEA:** Ekinodermoa/ Forcipulatida ordena /Mathasterias generoa.

**NEURRIA:** 25-30 cm arteko diametroa.

**NON BIZI DA?** Itsasertetik hurbil, 200 metroko sakoneraraino.

**ERNALKETA SEXUALA ETA ASEXUALA:** Asexuala birsorkuntza eta klonazio bidez egiten du. Espezie dioikoa izanik, bi sexuak banatuak dituen, ernalketa sexuala planktoniko bitartez egiten du.

**NERBIOA BAI, GARUNIK EZ:** Nerbio sistema erdiko diskoan dagoen eratzun batek eta hortik besoetara ateratzen diren bost nerbio kordek osatzen dute.

**BABES MAILA:** Ez dago babestua.

# ORRIA EGITERA



JAKOBA ERREKONDO  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

O rriuldu gabe daude oraindik zuhaitzak eta arbolak. Hostoak ihartu gabe daude, bai. Eta hostoa jasotzeko sasoi aproposa da. Hostoa, batez ere geroago jasotzen da; zuhaitzaren adaburua janzten duen orritza edo hostotza erortzen denean edo orriultzen denean, lurraren instantziako epaitegian izena aldatu eta orbel bihurtzen denean. Orbel hori altxor bat da eta lurlangile bakoitzak bere erara baliatzen du: abereen edo baratzeako landareen azpietarako, simaurrak eta luarrak harrotzeko, lurrustela egiteko...

Hostoa berdetan jasotzen duenik ere bada. "Orria egitea" esaten zaio. Etxeko aziendaren bazkatarako biltzen da hostoa edo orria. Udaren gorabeheren atarramenduz belazeak gorri, larrea idor eta aberea gosez bada, hosto betean dagoen adarra jatenetarako moztu eta zuzenean animaliari ematen zaio. Uda beharrik gabe ere, ganadua gose bada, noiznahi hostoz jantzitako adar muturrak kraskatu eta ematen dira, "garrazta" esaten zaio. Eskura dena: lizarra (*Fraxinus excelsior*), ezkia (*Tilia spp.*), sasiakazia (*Robinia pseudoacacia*), artea (*Quercus ilex*), urkia (*Betula spp.*), mertxika (*Prunus persica*), gurbitzia (*Arbutus unedo*), pinu gorria (*Pinus sylvestris*), astigar arrunta (*Acer campestre*) eta zuria (*Acer pseudoplatanus*), hurritza (*Corylus avellana*), olibondoa (*Olea europaea*), haritza (*Quercus spp.*), lertxuna (*Populus tremula*), makala (*Populus nigra*), sahasa eta zumea (*Salix spp.*)...

Uda gozo joan bada eta belarrak eta alapideak kabalak berdindu samartuta bizitzeko adina izan badira ere, orain uda amaieran orria berdin-berdin egiten da. Adarrak hostoari gogor eusten dio oraindik eta hostoa mardul dago, sapak eta gizenak galtzen hasi gabe. Iraileko ilbeheran moztu eta bere berde horretan zortzi-hamarnakako sortatan, zatukatan lotuta, borda edo mandio bazterren batean zutik jaso. Ilunpearena ez da zirtzilkeria; argiak dena erretzen du eta hilda dagoena gehiago. Hostoak bere elikagaiei hobeto eutsiko die.



"Lizar-hostoa" esaten zaio lizarraren adarrak direnean. Maiz ikusiko dituzu, oraindik ere, lizar ederrak borda, korta eta etxe inguruetan. Lizarra gaztetan lepatzen da, behor luzeenaren luzatutako lepoaren hortzak iritsiko ez diren bi metro eta erdi edo hiru metrora, eta hostoaren lurraren instantziako epaitegi berean izena mudatu eta hortik atzera lizar moztza izango da. Ebaki haren bueltan haziko da aurrerantzean lizarra, han eman go ditu adar berriak. Adar horiek izango dira garraztak, moztu eta berehala abereei emanaz gero, edo lizar-hostoak, zatukatan negurako jaso gero. Lizarrarena bezala, batez ere haritzarena jaso izaten da, eta haritz motzari "motzaritz" esaten zaio. Zatukatan jasotzen den hostodun adar horri "orrilo", "abar-hosto", "arba-hosto", "garrazta" eta "hosto-xahar" esaten zaio, eta "txorroki" artearena bada.

Adarra osorik eskain dakieke abereen hortzei edo hostoak adarretik kenduta, adarra kimatu eta "hosto-kima" esaten zaio horri. Hosto-aizkora ttikiarekin kimatu edo orriuldu, edo hostogetu, edo orria kendu, edo orrigabetu, edo itzun-

du, edo hostoa kendu, edo orrindu, eta hostoa bazka garbia. Hosto lehorra bazka ederra, alajainena; atera kontuak: 800 gramo hosto lehor kilo bat belar ondu adina omen da.

Irail honetako ilbehera 14tik 28ra artean izango da. Aizkora ttikia zorroztu eta jaso aziendarentzako adarrak. Eta, zurea untxiak badira, bereziki maite dute zumarren (*Ulmus spp.*) hosto berdea. ●



AMAMA

# LURSAIL BAKOITZAK BERE ARNOA



**GARAZI ZABALETA**  
@TIRIKITRANN

Irulegi eta Anhauze artean ditu mahastiak Joanes Haritschelharrek, Amama proiektuaren bultzatzaileak. “Mahastiak ene amarenak ziren, eta bera jubilatut zenean hartu nuen nik etxaldea, 2022an”, azaldu du. Ama mahastizaina eta aita ardi gasnagilea ditu, eta beraz, beti izan du harreman estua laborantza munduarekin. Amak jubilazioa hartzearekin batera, arnogintza ikasketak egin eta erreleboa hartu zion semeak, laborantza biologikora salto eginda. Irulegi sormarkaren barruan dago Amama proiektua.

## ARNO BAKOITZA DESBERDINA

Hiru hektarea mahasti ditu guztira Haritschelharrek, hiru lursailetan banatuta; bi hektarea arno beltzerako, eta hirugarrena, zurirako. Beltzean Bordelasa, Axeria eta Axeri Handia barietateak darabiltza, eta zurian, berriz, Izkirota Txikia eta Izkirota Handia. “Lursail bakoitzak bere arno propioa du, mahatsak ez ditugu nahasten, arno bakoitza lursailaren erakusleho izatea nahi dut eta”. Izan ere, mahastizain honek azaldu digunez, lur motak, orientazioak, topografiak, mahastien adinak eta beste zenbait faktorek eragina dute arnoaren izaeran: “Zaporean eragina dute elementu horiek guztiek, horregatik da arno desberdina lursail bakoitzeko, izen banarekin”.

Baina arnoaren izaera eta zaporea aldatzen doa, ez soilik lursailaren arabera, baita urtearen arabera ere. “Urtetik urtera aldatzen dira arnoak, urte horretako klimaren arabera. Ez da gauza bera urte freskoa izan bada edo beroa eta eguzkitsua, ni ez naiz saiatzen urtero ber arnoa egiten”. Ekoizpen ekologikoan ari da irulegiarra, mekanizazio gutxiarekin eta batez ere eskuz biltzen du –gune menditsuak ez du mekanizazioa errazten–, eta gehigarriak erabili gabe. “Arno naturalak dira, bakoitza bere nortasunarekin,



gehigarriak eta artifiziorik gabe”, dio. Urte osoan jardunaldi erdian langile bat du kontratatuta, eta mahats-biltze kanpian beste langile bat edo bi hartzen ditu, baina auzolanak pisu handia du Amaman. “Auzoko laborariekin, familiarekin, lagunekin... mahastizainen artean aintz mantentzen dugu auzolan kultura hori”.

## IRAILAREN 14AN IRULEGIKO SORMARKAREN BESTA

Mahats biltzen bezala, materialak partekatzen ere elkarlanean ari dira Irulegiko laborariak, Haritschelharrek nabarmendu duenez. Izan ere, makineria eta tresneria partekatzeko taldea dute zenbait ekoizpenen artean. “Etxalde ttipiak ditugu, eta garrantzitsua da tresnak partekatzeko eta elkarlanerako horrelako proiektuak egotea”, dio. Biba Ardoak proiektuko kide ere bada.

Irailaren 14an Irulegiko sormarkaren besta edo ate irekiak egingen dituzte herrian. Amama proiektua eta gainontzeko mahastizain guztiak bertan egonen dira,

eta bertaratzeko gonbitea luzatu du laborariak. “Gure arnoak dastatzeko, eza-gutzeko eta Irulegin besta giroan egun eder bat igarotzeko aukera izanen da”, amaitu du. ●





## Hitz gezidunak

|                                                         |                         |                                                     |  |                                                  |                                                    |                                                       |  |                                         |                                                      |                                           |                    |
|---------------------------------------------------------|-------------------------|-----------------------------------------------------|--|--------------------------------------------------|----------------------------------------------------|-------------------------------------------------------|--|-----------------------------------------|------------------------------------------------------|-------------------------------------------|--------------------|
| ABEREEN<br>BAZKA<br>... BESO,<br>ELKARRI<br>BESOTIK     |                         | JOLAS<br>EGITEAN<br>BEGIRA                          |  | DA, NIRI                                         |                                                    | NAHASTE<br>MOLDAE-<br>RRAZA<br>MESPRE-<br>ZUZKO HITZA |  | AKARO<br>PERTSO-<br>NAIAREN<br>IZENA    |                                                      | XALOTASU-<br>NEZ<br>GOGAITARAZI           |                    |
|                                                         |                         |                                                     |  |                                                  |                                                    |                                                       |  |                                         |                                                      |                                           |                    |
| ZELAN<br>NANOTESLA                                      |                         |                                                     |  |                                                  |                                                    | KAIKU, LELO<br>BI GEHI BAT                            |  |                                         |                                                      |                                           |                    |
|                                                         |                         | ADIA,<br>AUHENA<br>BEHIAREN<br>FAMILIAKO<br>UGAZTUN |  | UKAMEN<br>HAZITARAKO<br>TXERRI AR                |                                                    | HORRELAKO<br>EURIA<br>GELDITU                         |  |                                         |                                                      |                                           |                    |
| ARMA<br>ZORROTZA<br>LEKU, ALDE                          |                         |                                                     |  |                                                  |                                                    |                                                       |  | MODUAK<br>ESAKA                         |                                                      |                                           |                    |
|                                                         |                         |                                                     |  | ARGAZKI,<br>ERRETRATU<br>GIPUZKOAKO<br>UDALERRIA |                                                    |                                                       |  |                                         | NORI<br>ATZIZKIA<br>EGUZKIAZ<br>MINTZATUZ,<br>SARTZE |                                           |                    |
| TXINAKO<br>HERRITAR                                     | ARTO OPIL<br>HAUR OIHAL |                                                     |  |                                                  | EUSPENA<br>ERAGIN<br>ESANGURA<br>DUEN<br>PARTIKULA |                                                       |  |                                         |                                                      |                                           | DENBORA,<br>GARAIA |
|                                                         |                         |                                                     |  |                                                  |                                                    |                                                       |  |                                         |                                                      |                                           |                    |
| GALDE<br>PARTIKULA<br>AUTOMOBIL-<br>AK                  |                         |                                                     |  | ZEIN<br>GAUZATAN<br>ARDI, HITZ<br>ELKARKETAN     |                                                    |                                                       |  | SABELEKO<br>ORBAIN<br>NOREN<br>ATZIZKIA |                                                      |                                           |                    |
|                                                         |                         |                                                     |  |                                                  | ZERBAIT<br>EGITEKO<br>ABAGUNEA<br>IRIDIOA          |                                                       |  |                                         |                                                      | DEUTERIOA<br>SAILBURU<br>(LABURDU-<br>RA) |                    |
| PERTSO-<br>NAIAREN<br>ABIZENA<br>PRETORIAKO<br>HERRITAR |                         |                                                     |  |                                                  |                                                    | EZ ONARTU,<br>UKATU<br>LEHEN<br>BOKALA                |  |                                         |                                                      |                                           |                    |
|                                                         |                         |                                                     |  |                                                  |                                                    |                                                       |  |                                         |                                                      |                                           |                    |
|                                                         |                         |                                                     |  |                                                  |                                                    |                                                       |  | EMAKUMEZKO<br>BATENTZAT,<br>SENIDE ARRA |                                                      |                                           |                    |

## Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO  
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3  
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   | 2 | 8 | 1 |   | 6 |   |   |   |
|   | 6 | 1 | 9 |   | 5 | 2 | 4 |   |
|   |   |   | 4 | 2 | 3 | 6 | 8 |   |
| 6 |   | 5 | 3 |   |   |   |   | 2 |
| 1 |   |   |   |   | 8 |   | 6 | 4 |
|   |   | 7 |   |   | 1 | 3 | 5 |   |
| 9 |   |   |   | 3 | 4 | 1 | 2 | 5 |
|   | 5 |   |   |   |   |   |   |   |
|   | 1 |   | 6 |   | 9 |   | 7 |   |

## 5x5

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA,  
HITZ BERA.

1. Higuin.
2. Teteleak, kaikuak.
3. Harritu.
4. Katu ar.
5. Errenta, alokairua.

|  |  |  |  |  |
|--|--|--|--|--|
|  |  |  |  |  |
|  |  |  |  |  |
|  |  |  |  |  |
|  |  |  |  |  |
|  |  |  |  |  |

## EBAZPENAK

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | 7 | 4 | 6 | 5 | 9 | 3 | 2 | 1 |
| 9 | 3 | 6 | 2 | 1 | 8 | 4 | 7 | 5 |
| 6 | 4 | 7 | 3 | 4 | 1 | 2 | 5 | 8 |
| 4 | 7 | 2 | 1 | 9 | 2 | 7 | 3 | 6 |
| 3 | 2 | 5 | 6 | 8 | 9 | 7 | 4 | 1 |
| 7 | 8 | 4 | 7 | 8 | 1 | 2 | 6 | 9 |
| 5 | 7 | 9 | 4 | 2 | 3 | 6 | 8 | 1 |
| 3 | 6 | 1 | 9 | 8 | 5 | 2 | 4 | 7 |
| 4 | 2 | 8 | 1 | 7 | 6 | 5 | 9 | 3 |

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| V | B | E | N | R | V | I | R | O | L | E | R | P |
| I | S | J | E | Z | E | Z | I | V | R | P | V |   |
| D | V | E | R | U | V | K | V | O | L | O |   |   |
| L | I | Z | N | V | L | R | E | Z |   | T | V |   |
| V | Z | J | E | V | R | V | L | V | N | I | X | L |
| V | E | L | S | U | E | O | T | V | L |   |   |   |
| I | R | L | E | R | L | O | P | E | N | U | G |   |
| K | V | R | E | I | V | L | V | L | S | V | S |   |
| O | K | V | L | V | H | U | I | V | L | N |   |   |
| L | E | G | E |   |   |   |   | V | L | O | N |   |
| V | N | I | V | R | I |   |   | Z | O | S | E | B |
| X |   | Z | O |   |   |   |   |   | J | P |   |   |



# Itsaso zakar bat eta bi ahots poetiko

## XAK ETA EKIZA

**NOIZ:** Abuztuaren 27an

**NON:** Ondargain txiringitoan (Deba)

UDANE BARINAGARREMENTERIA LAKA

Euri langarraren eta lanbro-lainoen artean pasatu dugu Gipuzkoako muga, kostaldean zehar doan errepidetik itsaso zakarrari beha. Bandera gorriak, hondartza hutsak, xirak eta aterkiak ikusten dira Deban. Abuztuaren hondarreko iluntze honetan txiringitoen eguzkitakoen azpian hartu du jendeak aterpea. Ondargaineko toldoak ozta-ozta eusten dio gaineke euri pilatuari, azpian dituen bafleak, mikroak, gitarrek eta mahaia estaltzeko. Gitarrez gaindi, harro-harro apurtzen diren olatuak ikus daitezke toldopetik. Eta atrezzoaren ederra ez litzateke hori besterik, gaurkoan musikariek egindako heldueraren berezitasunagatik ez balitz.

Izan ere, Paxkal Irigoyen eta Jurgi Ekiza belaontzian heldu dira goiz honetan Mutrikura, ia olatuak gainetik pasatzen zaizkiela. Kapitain bat gidari, Itsasun hasita Potenvedrarraino eta buelta, etxera bidean azken-aurreko geldialdia dute gaurkoa, *Bira belaontzian/ Xira en veleiro* izendatu duten zortzi kontzertuko proposamen ero

samar baten baitan. Aski poesia eta magia bada jadanik bi musikarien proiektu indibidualetan, pentsa itsasbidaia batek batu eta elkar-elikatzean, ia oholtzaraino heltzen den itsasertzak egiten duen konpainian, atzealdean murrua joz apurtzen diren olatuen presentzian eta goibeldutako zeru azpian.

Espero zitekeenez, deskribatutako paisaiari ezarri dioten soinu-bandak ere hunkituta utzi gaitu, bien bakarkako proiektu zahar zein berrietatik egindako hamabi kanturen hautaketa xehearekin. Ia hamarkada bat lehenago kaleratutako abesti zenbaitzuk biziberritu dituzte, tartean *Kontsumo Produkto* (Irigoyen, 2017) eta *bH036-DG* (Ekiza, 2016) diskoetatik erreskatatuak. Baita Ekizak biharamunez kaleratuko duen *Argitzala* laneko aurre-rapen kantu bat ere –hau irakurtzen duzunerako sareetan entzungai egongo da–. Hala, bestelako itsasbidaia batzuen oihartzunak ere ekarri dizkigute: "*Ontziak, kanoiak, itsaso gorri baten gainean eta keen atzean ez da lurrik ikusten olatu ezin isil-*

*duen ibilbidean*". Gehien-gehien harrapatu nautenak, baina, Irigoyenen Xak proiektuko abestiak izan dira, zuzenean entzun aurretik ere udan zehar ia obsesiboki akonpainatu nautenak. Tristeak, xamurrak, zuzenean eta paisaia horretan are ederrago bihurtu direnak. Edonola ere, eserita ziren oinak dantzan jarri eta gogoz kantatu eta txalotu direnak Willis Drummond *hitak* izan dira. Eta amaiera borobiltzeko, klasiko baten bertsio bat, beste itsasertz baterantz: Gaza Calling.

Autura bueltan, lasaitzeko asmorik ez duela diosku itsasoak, xahutzen ez den inspirazio-iturri izaten jarraitzen duela berretsi nahian bezala; izan intimitatearen loihak biluzteko, izan indarkeria koloniala salatzeke. Dirudienek, belaontziko kapitainak izango du lanik etxera heldu artean. Helduko ote dira, biharamunez ere segi dezaten bertaratutakoei barrenak epeltzen. Eta, aldi berean, halabeharrak bultzatutako itsasbidaien eta bizitza suntsitzen ari diren itsasbazterren gordinak poesiaz kantatzen. ●

“ ”

# *Film sexualki esplizitua izatea loturik dago errealitate bati, Maspalomas*

Aitor Arregi eta Jose Mari Goenaga

Vicentek 76 urte ditu eta azken mende laurdena Kanaria uharteetan darama, Maspalomas herrian, 50 urteko bizialdian ezkutatu duen izatea haizatzen: homosexuala da. Ez behar baten eraginez, Donostiara itzularaziko dute, eta zahar etxe batean sartuko. Atzera ere, armairuko ateak zabaldu eta bertan ezkutatuko da.

Gelditu gabe dabilta Moriartitarrak. lazko *Marco* arrakastatsuen ondotik, aurten film berria dakarte besapean: *Maspalomas*. Donostiako Zinemaldian egingo du mundu mailako estreinaldia, Sail Ofizialean, eta Hego Euskal Herriko zine aretoetara helduko da berehala, irailaren 26tik aurrera. "Jauzi bat" izatea espero dute.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

## **Ilusioa egingo dizue etxean aurkezteak.**

**Aitor Arregi:** Bai, jakina. Batetik, etxean egoteak ematen duen poztasunarengatik, gertuko jendea bertan egongo delako. Donostiarekin ere lotura dauka gure filmografiak: lan gehienak, era batera edo bestera, hiritik pasa dira, tartean Zine-

malditik, eta bizipen ederrak ditugu. Bestetik, Donostiako Zinemaldia bera oso inportantea da nazioartean, eta pelikulek jauzia ematen dute hemendik pasa izanari esker. Betiere, noski, gustatzen bada.

Baina ni, batez ere, gogotsu nago jendearen erreakzioa ikusteko. Uste dut pelikula motarengatik, eta oro har eus-

karaz delako, Zinemaldikoa foro polita izango zaigula.

**Gidoia, Jose Mari, zuk sinatu duzu. Bakarrik egin duzu. Orain artean, lau edo sei eskutara idatzi izan dizue, modu diferentetan.**

**Jose Mari Goenaga:** Lehenbiziko bertsioa nik egin nuen, gustatu zen lantaldean, eta Aitor [Arregi] eta Jon [Garaño] *Marco* filmaren zuzendaritzan sartu ziren bete-betean. Hortaz, nik bakarrik jarraitu nuen. Baina horrez gain, nahiz eta pertsonaiak 70 urte baino gehiago izan, niretzat bazen istorio pertsonala. Nire gogoeta eta ezinegon asko jasotzen dira istorioan. Idatzi ditudanen artean, dudarik gabe istoriorik pertsonalena da.

**Fikziozko istorio honek, hortaz, zenbat du errealitatetik?**

**Goenaga:** Fikzioa da dena, baina eraikitzen duzunean zeozer, beti sartzen duzu zurea den zerbait. Eragiten diozu buruari, eta pentsatu ea nola sentituko edo identifikatuko zintezkeen egoera horretan, eta zer ekarpen egin diezaiokezun zeuretik. Nire kasuan oso argia zen: armairutik irtetea asko kostatu zitzaidan. Filmerako ideia, ordea, sortu zen notizia bat irakurri nuenean. Artikuluak zioen homosexuala den jende heldua, zahar etxera joatean, berriz armairuan sartzen dela. Oso gogo-



rra iruditu zitzaidan. Batik bat ari gare-lako hizketan belaunaldi zaharrago bati buruz; haiei askoz ere gehiago kostatu zitzaizen armairutik irtetea.

Bestalde, 2016an joan nintzen lehen-bizikoz Maspalomas herrira. Hango mikrokosmosa kontatzeko modukoa iruditu zitzaidan, eta zahar etxekoarekin lotuta, bi ideiak pelikula batera eraman zitezkeela ikusi nuen.

“ ”

**Zinemaldiak ez  
dizkizu gauzak  
errazago jartzen  
hemengoa zarelako;  
agian, kontrakoa**

**Maspalomaseko mikrokosmosa aipatu duzu, eta hori bada, hein batean, armairu bat. Baita zahar etxekoa ere. Oro har, uste dut, armairu asko ageri direla filmean. Edo dena da armairu bat.**

**Goenaga:** Are gehiago, gidoiaren lehen tratamendua idatzi nuen konfinamendu garaian, eta hura bai izan zela armairu bat. Denok sartu gintuen barruan. Interresgarria iruditu zitzaidan hori ere istorioan sartzea.

Begira, atzo egon ginen Aitor [Arregi] eta biok komentatzen: konfinamendua hasi zenean *La trinchera infinita* gure pelikula estreinatu zen plataformetan, eta hain justu filmak konfinamendu bati buruz hitz egiten du. Ikusle askok oso gertuko sentitu zuten istorioa.

Galdetu digute ea *Maspalomas* pelikula gure filmografiako zein filmekin duen zerikusi gehien, eta uste dut *La trinchera infinita* dela hurbilekoena. Egia da,

itxura aldetik, baita euskaraz delako ere, *Loreak*-ekin eta *80 egunean*-ekin lotura gehiago izan dezakeela. Baina *La trinchera infinita*-k, azkenean, beste toki bate-tik bada ere, gauza askotan gai beraren inguruan hitz egiten du: pertsona gisa aldatzeko eta ezkututik ateratzeko bel-durra, erabakiak hartzeko eta pauso bat aurrera ematekoa...

**2010ean, Jon Garañok eta zuk, Jose Mari, 80 egunean filma egin zenuten, Moriartiren izenean. Gai aldetik badute lotura estua: adineko bi pertsona dira, kasu hartan emakumeak, Axun eta Maite, eta sentimendu eta harreman batzuk pizten zaizkie. Harreman lesbikoa dago. Film horretan pasioa egon badago, baina kontaktu fisikorik apenas. Bi-hiru musu, ez gehiago. *Maspalomas*-en, ordea, guztiz bestelako eszenak erakutsi dituzue.**



**Goenaga:** Esango nuke kode desberdina direla. *Maspalomas*-en sexua istorioaren parte da, eta *80 egunean*-en, uste dut, gehiago dela barrura begirakoa, pertsonaiaren psikologian sartuta. Fokua gehiago dago Axunen desleialtasunean ipinita, homosexualitatean baino.

*Maspalomas*-en gauzak beste bide batetik doaz: pertsonaia batek nola bizi duen bere sexualitatea, nola ezkutatu nahi duen eta nola erakutsi, sentimenduak ote dituen harekiko edo bestearekiko, zein puntutaraino, zerk erakartzen dion... Uste dut anbiguoak direla gauza horiek, eta erdigunean ipintzen dela protagonistak bere sexualitatearekin duen gatazka. *80 egunean*-en ere badago barne gatazka hori, baina platonikoagoa dela esango nuke. Horregatik, *80 egunean* filmean ez

zegoen horrenbeste sexurik, eta *Maspalomas*-en, aldiz, funtsezkoa da.

**Arregi:** Pudorea ematen dit *80 egunean*-i buruz hitz egiteak, ez bainintzen ez gidoian eta ez zuzendaritzan egon. Baina kurioa egiten zait, gu orduan gazteagoak izanda, esan duzun moduan bi-hiru musu baino ez egotea, eta hamabost urte pasa ondoren askoz ere gauza esplizituagoak egitea. Baina proiektuaren arabera ere bada.

Jose Marik [Goenaga] *Maspalomas*-en proiektua aurkeztu zigunean, gehien estimatu nuena izan zen dena hain esplizitua izatea. Bat: ikusten nuelako Moriartik ez zuela inoiz halakorik egin. Eta bi: hain esplizitua izate hori loturik dagoelako, oro har, esperientzia konkretu bati, Maspalomaseko kosmosari. *Maspalomas* mundu



bat da, nik pertsonalki ez nuena urrundik ere ezagutzen, eta uste dut ikusle askok ere ez dutela ezagutuko. Helburuetako bat hori da, jendeari erreala den mundu bat ezagutaraztea.

Pelikula ez da soilik berriz ere armairuan sartzen den pertsona bati buruzkoa. Hori da muina, ziurrenik. Baina horri lotuta doa sexualitateaz egiten den irakurketa. Uste dugu jende nagusiak ez daukala desio sexualik, eta kalera irten eta inkestak egingo bagenu, hamarretik zazpik edo zortzik esango lukete hori. Neuk barne, pelikula hau egin aurretik. Badirudi, adinean aurrera egin ahala, eta indarra, erreflexuak, malgutasuna eta abarrak galdu ahala, desio sexualak ere galdu egiten direla. Eta horrela izan daiteke. Edo ez. *Maspalomas*era joan besterik ez dago





ikusteko adineko zenbat jende dagoen ondo pasatzeko gogoz, eta askotan jende gaztea baino libido gehiagorekin. Hori dena istorioaren barnean dago, eta erakutsi beharra zegoen.

**Badira bi gai handi, dagoeneko aipatu ditugunak: sexualitatea eta zahartzaroa. Pelikula osoan daude presente, baina modu diferentean. Vicentek sentitzen duen askatasunaren arabera aldatzen da. Zahar etxeak eragina du.**

**Arregi:** Erresidentziak gizartearen metafora bat direla esan izan dugu gure artean. Jarrerari eta parte-hartzeari dagozkion arauak kalekoak baino zorrotzagoak dira, eta erresidentziaren barnean, adibidez, sexua izateko aukerarik



ez dago. Filmean ageri da kasu bat; benetakoa da. Jose Marik [Goenaga] dokumentatu zuen. Gauza horiek kudeatzea zaila da erresidentziarentzat, hala da, eta egokitzen doaz etengabe. Hori ere ageri da filmean.

Atzo pelikula bat ikusi nuen, eta erabiltzen zuten termino hau: "Askatasunetik behartu zaituzte". Hau da, libre zara nahi duzuna egiteko, baina aldi berean ez zara erabat libre. Zeren karga bat existitzen da, behartzen zaituena erabakia alde baterantz hartzera. Gizartean hori gertatzen da. Eta filmeko erresidentzian ere bai. Vicenterik inork ez dio esango armairuan sartzeko eta bere homosexualitatea ezkutatzeko. Libre da kontatzeko edo ez kontatzeko. Baina badago giro bat erresidentzian, kode bat, indar

ikusezin bat, bultzatzen duena erabaki hori hartzera. Eta gizarteak horrela funtzionatzen du. Zentzu horretan, gizarte honetan minorizaturik sentitzen ez dena pribilegiatu bat da.

**Goenaga:** Gauzak homogeneizatzera jotzen duen gizartean bizi gara, orokorrean, eta biolentzia estruktural handia sortzen da. Gure lehenbiziko pentsaera da denok garela heterosexualak. Edota jende helduak ez duela sexurik praktikatzeko, ez duela desiorik. Hortaz, hor barruan sentitzen denaren esku dago esatea ez dela heterosexuala, edo 80 urte dituela eta sexua praktikatzeko duela. Orokortasun horretatik ateratzeak norberari esfortzua eskatzen dio, eta jasotzen diren *input*-en arabera, beldurra sentitu daiteke onartua ez izateko.



**Aipatu dituzuen karga horiek presente daude pelikulan, baina momentu batzuetan presioa askatzen du Vicentek. Koloreekin nabaritu daiteke bereizketa. Maspalomasen festa giroa dago, kolore horixkak nabarmentzen dira, musika ere ozen; eta erresidentzian, aldiz, ilunagoa da dena, hotzagoa, urdinagoa...**

**Goenaga:** Berdeagoa esango nuke [elkar begiratu eta barre egin dute]. Berdearena diot, zeren Maspalomasen ez da ia-ia berderik ageri. Mikel Serrano arte-zuzendariak esaten zigun berde kolorea "ustel kolorea" zela, eta saihestu behar genuela.

**Arregi:** 35 milimetrotan egin dugu filma, eta horrela koloreak biziago irteten dira, edo gehiago biziagotu daitezke. Eta itxura denez, zeren gu ez gara adituak honetan, zeluloideak [teknika horrekin grabatu dute] gama handiagoa ematen du horretan. Guretzat inportantea zen kontrastea. Nahi genuen Maspalomasen eta erresidentziaren mundua ondo bereizi, ikusleak sentitzea Vicente non zegoen lehen eta non orain.

Grabatzerakoan ere zentzuarekin jolas-tu dugu. Maspalomasen, funtsean, parean daukazu itsaso urdin-urdina, hondartza, eguzkia, dunak, eta gero yumboa, zentro komertziala eta festa eremua, kolore guztiekin, emozioak eta beste. Eta Harrotasun Eguna, hori da gorena. Hortik dator Vicente, eta sartuko da erresidentziako berdetasun horretan. Hor badira tonuak: lehen zatian agian grisagoa edo neutroagoa izan daiteke, eta gero eboluzioa izan dezake, segun eta eszenak non kokatzen diren.

“ ”

***Badirudi, adinean aurrera egin ahala, eta indarra, erreflexuak, malgutasuna eta abarrak galdu ahala, desio sexualak ere galdu egiten direla. Eta horrela izan daiteke. Edo ez.***

**Nabarmenduko nuke Jose Ramon Soroizen lana (Vicente). Lan ugari egin ditu bere ibilbidean, baina rol honetan ez nuke imajinatuko.**

**Goenaga:** Hasieratik argi geneukan Soroiz nahi genuela paper horretarako. Berari eskaini genion hasiera-hasieratik, eta baiezkua eman zuen. Beno, zalantzak izan zituen. Esan zigun ez zuela promozio elkarrizketarik egin nahi, ito egiten duelako esposizio publikoak. Ez zen erronka makala, eta ausardia handia erakutsi du.

Pelikularen ideiarekin elkartu ginen lehenbiziko aldian ez genion esan sexu eszena dezente zeudela [barre lotsatia]. Bidali nion gidoia, eta emailen, amaieran

ipini nion "bide batez" halako eta halako zegoela. Adierazi nion hitz egiten joango ginela, eta noski, ez zeukala egin beharrik nahi ez zuen ezer. Irakurri zuen gidoia, eta, espero genuen bezala, inpresioa eragin zion sexu eszena asko egoteak. Baina era berean, esan zuen Vicenteren pertsonaia interesgarria egiten zitzaiola. Baiezkua eman zuen, eta joango ginela poliki-poliki sexu eszenak lantzen.

Garrantzitsua izan zaigu intimitate koordinatzaileekin lan egitea; lehenbiziko aldia zen guretzat. Uste dut denontzat errazagoa izan dela dena. Bitartekari lana egiten zuten koordinatzaileek, proposamenak egiten zituzten, eta denon artean adosten genuen eszena nola egin.

**Aktore talde bikaina daukazue pelikuan. Kandido Urangaren rola mundiala iruditu zait.**

**Arregi:** Gidoian oso-oso argi zegoen idatzita pertsonaia hori, Xanti. Profil konkretua zeukan. Kandido Urangaren izena bazebilen gure artean, eta castinga egin genuen, badaezpada. Baina lehenengo momentutik ikusi genuen bera zela tipoa. Denagatik. Berehala ulertu zuen nondik joan behar zuen pertsonaiak, eta ez dakit zer portzentaje, baina Xantiren zeozer badauka Kandidok bizitza errealean [barre egin dute].

**Ondo osatzen du armairuaren metafora. Koloreekin-eta aipatu duzuen kolpe hori, tonu aldaketa, Xantiren pertsonaiari esker ere ematen da.**

**Goenaga:** Xanti da gizentasunaren eta heterosexualiteren prototipoa. Ia-ia hori sinbolizatzen du. Vicentek harreman oso berezia du berarekin.

**Isiltasunaz ere hitz egin nahiko nuke. Lehen 80 egunean aipatu dugu, eta filmaren inguruko hemeroteka arakatu dut. ARGIA, 2010eko maiatzean, Mikel Garcia Idiakez kazetariak elkarrizketa egin zizuen Jon Garañori eta zuri, Jose Mari. Honela zenioen: "Pisu gehiago dute esaten ez diren gauzek, esaten direnek baino". Orain, Maspalomas filmean, badira esaten ez diren gauzak, baina isiltasuna beste era batera landu duzuela esango nuke.**

**Goenaga:** Maspalomas-en iraganak pisu handia dauka, Vicenteren eta bere alaba Nerearen [Nagore Aranburu] artean gertatutakoak. Baina ez nuen gehiegi hitz egin nahi horretaz. Nolabait ere



ikusleak imajinatu dezala zer gertatu zen iraganean. Ez zait oso zinematografikoa iruditzen pelikula batek iraganari buruz gehiegi hitz egitea. Nahiago dut gauzak orainean kokatu. Baina, era berean, gauza batzuk esplikatzea behar dira. Zenbait gauza, ordea, isiltasunaren bidez esplika daitezke.

**Arregi:** Pentsatzen jarrita, uste dut gure filmografian asko ikusten den zerbait dela isiltasuna: *Marco*-n bazegoen emaztearekin; *Handia*-n Martinek aitarekin; *Lo-reak*-en duda barik bazegoen... Segur aski tentsio elementu potente bat da. Azkenean, pelikula bati indarra eman nahian zabiltzanean, aliatuak bilatu behar dira. Eta horixe da gure aliatuetako bat.

“ ”

## Erresidentziak gizartearen metafora dira

**Hemerotekari begira segika. Duela hamar urte, Zinemaldiaren bueltan, Ander Lipusi elkarrizketa egin zitzaion ARGIAN, Amama filma aurkezten zutelako. Honela zioen Lipusek: “Sail Ofizialean euskarazko bi film urtero, zergatik ez?”. Begira, aurten bi zoazte: Asier Altunaren *Karme*le eta zuona. Eta Koldo Almandozen *Zeru ahoak* telesailarekin, hiru. Sail Ofizialean hirurak. Eta *New Directors*-en Irati Gorostidiren *Aro berria*.**

**Arregi:** Pozgarria da oso, eta ezin da ikusi beste era batera. Azkenengo urteotan gauzak ondo egin diren seinale da. Zaintza bat egon da administrazioaren aldetik, dirulaguntzak egon direlako, politika egoikiak izan dira, eta batez ere, sorkuntzan genbiltzanok hortxe segitzen dugulako eta jende berria etorri delako proposamen oso onekin. Hala ere, beti pentsatzen dugu sektore hau oso ahula dela, eta iturri bat itxiz gero, dena behera doala.

Beste kontu bat: Zinemaldiak ez dizkizu gauzak errazago jartzen hemengoa zarelako. Agian, kontrakoa. Sartu bazaituzte, merezi duzulako da. Eta horrela izan behar du. Bestela, zuretzat eta Zinemaldiarentzat kalte.

Tira, eta Zinemaldian egongo ez bada ere, azaroan helduko da Paul Urkijoren



*Gaua.* Hori guztiz bestelako gauza bat da. Pelikula fantastikoa eta euskaraz. Orain dela hamar urte, *Errementari* aurretik, ez genukeen imajinatuko halakorik. Sitges-eko festibalean egongo da, lehian. Oso jaialdi potentea da.

**Goenaga:** Urteotan salto bat egon da, aurrekontu aldetik eta abar, eta desgrabazio fiskalak ere ipini direnez, gauzak erraztu dira. Gobernuen-eta apustu bat izan da, bai, baina nabarmendu behar da produktzio etxeek eta, batez ere sortzaileek, apustu horri erantzuten jakin diotela. Era berean, emakume sortzaileak bultzatzeko politikak ere egin dira, erakundeen azken bi hamarkadetakoa apustua izan da, eta hor ere sortzaileek erantzun dute. Kontu horiek isla dute zine jaialdietan.

**Arregi:** Proiektuak gauzatzen direnean, jende asko dago medaila jarri nahi duena. Oso ondo dago dirua ipintzea, fundamental da, baina tira: aritu dena bi, hiru edo ez dakit zenbat urtez sorkuntza horrekin lanean, proiektuarekin tematuta, uste dut epizentroan ipini behar dela. Egia da Guillermo del Toro zuzendariak esaten duena: “Pelikula baten berezko izatea ez existitzea da”. Alegia, ez badago sortzaile bat, produktoreak lagunduta, argi esaten duena alde edo moldez pelikula bat egingo duela, gizarteari kontatzeko mundiala iruditzen zaion istorio bat daukalako esku artean, eta ez badu borroka egiten harri tonak mugiarazteko, ez da existituko pelikula hori. Estreinaldiko argazkiak-eta ondo daude, politikariek eta abar, baina erdigunean ipini behar dira borroka hori aurrera eraman duten pertsonak.

**Zorte on Zinemaldian...**

**Goenaga:** Eskerrik asko.

**... uste dut, zintzoak izanda, sariren bat eskuratzekotan egon zaitezketela.**

**Goenaga:** Hori ez dago ez gure esku, ezta filmaren esku ere. Zazpi pertsonez osatutako epaimahai baten erabakia da, eta ematen dituzten sariak beraiei buruz hitz egiten dute gehiago, filmez baino. Jakina, ilusio handia egiten dute sariak, baina lortzen ez bada ere, garrantzitsuenak da Zinemaldia trapolin bat izatea gure filmarentzat.

**Arregi:** Hau ez da sarien metaketa joko bat. Ezta banaketa kontu bat ere. Lau garren aldiz egongo gara Zinemaldiko Sail Ofizialean, eta denetarik ikusi dugu. Aurrekotan saririk jaso ez genuelako, orain horregatik ez digute eman-go [barre egin du]. ●



aholkukoop  
Fiskala Kontadineko Laborategia

EKONOMIA SOZIAL  
ETA ERALDATZAILEAREN  
BIDEAN DOAZENEN  
AHOLKULARITZA

Ametzagaina 17, beheka / Donostia  
943 005 680 aholku.eus



## LIBURUA

# Ezberdinak eta antzekoak



MACMILLAN PUBLISHERS

## UMEA HEMEN, UMEA HAN

CHUCK GROENINK

ITZULPENA

NAGORE PEREZ

IBAIZABAL, 2025

XABIER ETXANIZ ERLE

**H**istoriaurreko instant bat du azpi izenburu liburu honek, eta horixe da, hain zuzen, egileak kontatu nahi diguna, instant bat.

Ilustratzaile ezagun honek idatzi eta ilustraturiko lehen obra honetan egilearen estiloa garbi ikusten da: irudi sinpleak, pastel koloreekin, detaile baino orokorreko ideian zentratuta. Egileak ederki lortzen du islatu nahi duen mezua helaraztea. Eta horretarako, kasu honetan gainera, hitz gutxi eta oso oinarritzkoetara mugatzen da. Izenburuak berak adierazten duen bezala, hitz zehatz eta gutxitan adierazten digu mezua.

Familia baten kontakizunarekin hasten da, historiaurrean kokaturik, eta hartzak, mamutak eta animalia ugariz inguraturiko giro batean. Familia kobazulora iristen da,

nekatuta, "Aita, ama eta ehiztariak han; oin nekatuak, bidaia luzearen ondoren. Umea hemen, berriz haranean". Eta umea da liburuiko protagonista: dena bere zain du umeak, etxea atzean utzi eta haranera joko du. Bidaian egileak ingurua deskribatzen digu haurren begiekin, "zuhaitzak handi, umea txiki. Umea handi, zomorroa txiki", eta testu gutxiarekin eta orri osoko ilustrazioen bidez kontakizunaren narrazioa osatzen joango da. Harik eta jolasean, animaliekin, ingurua ikusten egon ondoren ibairaino iritsi arte. "Mendia han, urrun. Ibai distiratsua hurbil. Umea hemen". Eta hurrengo orrian... "Umea han". Ibaiaren bazter bietan daude umeak, gure protagonista albo batean, eta bestean bera bezalako beste ume bat, azal kolore apur bat ilunagoa, arropa gehiagorekin jantzia... baina

antzekoak: "Begiak hemen. Sudurra, ahoa han", "Begiak han. Sudurra, ahoa hemen" irakur dezakegu ume bakoitzaren aurpegi harrituaren azpian, biak ezberdinak baina biak oso antzekoak.

Arrotza bere familiarekin doa, eta esku bat goratuta desagertzen da. Gure umea kobazulora itzuli eta errautsetan eskua zikinduta eskuaren irudia uzten du kobazuloko paretan. "Esku bat gora, eta hemengo umeak hango umea du gogoan".

Enkontru horren narrazioak bestearengana hurbiltzen gaitu; egileak historiaurrean kokatzen du (eta liburuaren amaieran ohar batean azaltzen du neandertal eta homo sapiensen historia) baina egia da enkontru horrek balio duela gaur egungo gizartea hobeto ulertzeko, elkarrekin hobeto moldatzeko, bestea onartzeko... ●



## MUSIKA

# Atzera begira gaztea



**KAK!**

**KAK!**

AUTOEKOIZPENA, 2025

**IKER BARANDIARAN**

**B**adut lagun bat pop-aren bueltan Euskal Herrian emakume eta gazteek martxan jartzen dituzten proiektu berriei erreparatzen diena. Hark ezagutarazi dit onomatopeiadun talde bizkaitar hau. Hiruzpalau kantu sarean, eta uda ostean lan luzeago bat kaleratzeko asmoa.

KAK! taldea hiru hizkik eta marka batek osatzen dute; hobe esanda, hitz bereetik eratorritako hiru pieza, eta laugarrena beste etxe batetik etorritakoa. Hain zuzen ere, Irati, Etxahun eta Asier, hirurak Zazkel taldean trebatu ziren, eta Joanes fitxaje berria da. Zazkel proiektu harrigarrian funkya, 1980ko hamarkadaren nosalgia eta musika dantzagarria uztartzen

zituzten modu lotsagabea eta botereari kritika zorrotza eginez.

Laukote berri hau, baina, bestelako koordinadatan mugitzen da, zentzu zabalean hartuta popero eta rockeroagoetan hain zuzen ere. Hortaz, berez ez dauka Zazkel-ekin antzekotasunik; ez bada, agian, ahotsek protagonismo handia dutela eta kide gehienek abesten dutela. Are gehiago, Kak! bada azken hamarkadan Euskal Herrian handikeriarik gabe orain arteko rocka bestelako filtro batzuekin iragazteko oso presente dagoen tendentziaren beste islatako bat; hala nola distortsioa txikituta, ahots joko desberdinekin, melodia presenteago eginda...eta beti ere euskaraz... Eta ez da gutxi!

Proiektu honetan nolabait 1980ko ha-

markadako euskarazko (eta kanpoko) rock taldeei gorazarre egiten diete, baina haien koktelera berezian: *Ahaztu*-k gogora ekartzen dit Ama Say baxu kolpe eta arnasestuetan, baina jostaria izanda ere, rockeroagoa da eta, jakina, oso itsaskorra. *Hegan* (orain arteko) *hita* da, Anari indartsuenaren sonoritatea tenpoa apur bat azkartuta gitarra makurrekin eta oso emaitza sarkorra duena. *Txapecau!* *Irudiak*-ek zuzenean edaten du *new wave*-tik, nahiz eta Hertzaianak, Jotakie eta Tatxers-en trazako leloak ere badituen osagarri. A, eta hitzek gaurkotasan handia dute! *Begi urdinak*-ek ere badu euskal pop erradikaletik, baina *new wave* distiradun gitarrek eta ahots koro nabarmenek pisua hartzen dute. ●

# Erretiradako heroiak ere behar dira Hondarribian

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

**H**asieran familiak eta lagun-taldeak puskatu ziren: hori pentsatzen bazu, zu hor eta ni hemen, ez dut ezer gehiago jakin nahi zurekin. Mingarria izan zen hura. Hala izaten da desadostasun puntualetik etsaikeria absolutura pasatzean.

Gero, boikota etorri zen. Desberdin pentsatu ez ezik, desberdin desfilatu nahi zutenei jaietan parte hartzea eragotzi nahia. Milaka builaka, eskolako jolastokian txilibituekin eta danborrekin entsaiatu besterik egin nahi ez zuten Jaizkibel konpainiako emakumeen kontra. Irailaren 8an ez duzue desfilatuko, hori kantatzen zieten.

Ondoren, irailaren 8an desfilatu zutenean, irainak, bultzakadak, plastiko beltzezko pasilloak. Gutxien-gutxienez, emakumeak pasatzean haiei bizkarra ematea. Eta seinalatzea, ez derrigorrez jaietan bakarrik: hi, oso sueto aritzen haiz gai honetaz hizketan, kontuz ibili hadi.

Jarraian etorri zen urte osoan bizilagun subertsibo horiekin normal samar erla-

zionatzen hastea, baina jaietan bizkarra ematen jarraitzea, ez agurtzea, haien desfilea inondik inora ez ikustea.

Aspaldiko kontuez ari naiz, zenbaitek aurten bertan jarrera horiek aldarrikatzeko dokumental batean dirua eta denbora alferrik gastatu duten arren. Zeren, 2025eko Hondarribiko Alardean zer gertatu den jakin aurretik idazten ari banaiz ere, gauza bat segurua baita: ukazioa, bazterketa, beldurra eta emakumeen diziplinamendua sustatu zituen estrategia hura erabateko frakaso izan da. Gaur Hondarribiko Alardeko 22 konpainietako kideek bizimodu normal-normala egiten dute elkarrekin. Urte osoan hala da. Baita jaietan ere, ia-ia denen kasuan.

Gauzei horrela begiratuta, kontua ez da bakarrik Alarde baztertzaileko agintariek jada ez duela herriaren gehiengo ordezkatzen. Kontua da, ez dutela errepresentatzen beraien konpainietan desfilatzen duen jendearen zati handi bat ere. Eta, batez ere, ez daukatela etorkizunerako estrategiarik, beste urte batez arazoa

konpondu gabe uztea garaipen gisa ospatetik harago.

Hori guztia horrela bada, zergatik gabtza oraindik Alardearen korapilo hau ezin askaturik? Ba, animalia sozialak gare-lako, besteak beste. Taldeetan parte hartzen dugu. Taldeek asko ematen digute. Eta taldeek, era berean, izugarri baldintzatzen gaituzte. Talderik gabe, ez dugu gure burua berdin imajinatzen. Pertsonalki emakumeek parte hartzearen kontra ez dauden gizon askok euren taldearen kohesioa urratuko lukeen deus ez egitea erabakitzen dute urtero: beraien zati bati uko egitea bezala litzateke.

1638ko erresistentziaren epikaz jantzita ospatzen da urtero Alardea, baina paradoxikoa dirudien arren, beste mota bateko heroiak eskatzen dizkie aspaldi samarretik gizonen bakarrik osatutako konpainiei. Hans Magnus Enzensberger idazleak aipatu zituen “erretiradako heroiak” dauzkat gogoan. Egoerak eskatzen duen desmuntzatze-operazioa egiteko dimentsio moral berezia duten figurak; beraien sinesmen pertsonalak bereizteko gai direnak historian jokatzeko duten paperetik.

Alarde baztertzailearen agintemahaian ez dago gaur gaurkoz horrelako heroirik. Soldadu arrunten artean agertu beharko dira posizio propioak uzteko gai izango diren pertsonak, jakinda horrekin beraien parte bat ere atzean lagatzen ari direla; baina ulertuko dutenak sinbolismoz beteriko ospakizun honek ondorengoei zer utzi behar dien, burgomaisuak, komandanteak, kapitainak eta tenienteek diotena gorabehera. Ezin dugula oinordetzan eman bizilagunen arteko liskar eternal bat, eraso latzenaren aurrean bat egin da eutsi zion herriaren memoria baizik.

Hainbeste urteren ondoren, gehiegi eskatzea ote da? ●



# ARGIA EGUTEGIA 2025

*Aurten ere, egunero efemeride bat.*

Historiografia ofizialak albo batera utzi ohi dituen pertsonekin, egungo mundua hobeto ulertzen lagunduko diguten gertaerak errepasatuko ditugu urteurrenak aitzakia hartuta.

*"Oroimen historikoa ez da iraganeko nostalgia hutsa, tresna bat da gaurko injustiziaren aurkako borrokan"*

**Eduardo Galeano**



**47€**

Egutegia +  
Pago-egurrezko  
euskarria

**40€** Euskarria

Egutegia **12€**

**azoka.argia.eus**  
(+34) 943 37 15 45

**ARGIA 2026**

**11**  
LARUNBATA



# Erraldoi eta buruhandien karta jokoa

**Familien karta jokoa eta Memoria jokoa.**

*Euskal Herri guztitik etorritako erraldoi eta buruhandiak protagonista:  
Erraldoi kirolariak, Sanferminetakoak, mitologikoak, ipuinetakoak...*

Prezioa **12€**

Bidalketa gastuak **5€**. Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

[azoka.argia.eus](http://azoka.argia.eus) (+34) 943 37 15 45

 **ARGIA**